# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## LEHENDAKARITZA

**2163**

4/1992 LEGEA, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

### UZTAILAREN 17KO 4/1992 LEGEA, EUSKAL HERRIKO POLIZIARI BURUZKOA

Zioen Adierazpena

I

Euskal Herriko polizia erakundeak tratamendu nabaria eta berezia merezi izan zuen Estatutuan: Estatutuaren atalik luzeenetako batek, hamazazpigarrenak, gai honi buruz Autonomi Elkarteak duen aginpidea arautzeko helburua zuen bere osoan, eta aldi baterako laugarren xedapenak ahalmen zenbait organo bitariko baterako, Segurtasun-Batzorderako, gordetzea aurrikusten zuen, bai eta nolabaiteko nagusien lanpostuak betetzeko araubidea ere. Gure Elkartearen Oinarrizko Erakunde-Araueaan dauden bi puntu horiek Euskadi instituzionalizatzeko prozesuan Polizia Autonomoaren araubideari dagokion egoera berezia egoki bermatzen eta adierazten dute.

Dena dela, Polizia-erakunde bat ezin da egun batetik bestera eratu. Euskal Herrian ere, nahiz eta urrutiko zein hurbileko aurrekari oso nabariak izan, hala nola Lurralde Historikoetako Miñoiak, Foralak eta Mikeleteak edo zenbait Udaltzaingo oso garrantzizkoak, Polizia bat osoa, demokratikoa, zibila eta eraginkorra egituratzea zeregin gaitza da eta eguneroko ahaleginik handiena eskatzen duena.

Hamar urte baino gehiago igaro dira inguru sozio-politiko guztiz nahasi batean eratze-prozesu hau hasi zenetik. Laster berebat hamar urte beteko dira lehen ikastaldiko ertzainak beren kàrguez jabetu ziren egunetik. Aldi luzea, zalantzarik gabe; eta aldi luze horretan zehar, Estatutuaren testutik beretik abiaturiko prozesuak mugarri garrantzitsu asko izan ditu bitarteko: 290/1980 Errege Dekretua, Mikeleteak, Foralak eta Miñoiak berrezartzeko eta eguneratzekoa; Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko Ertzaintzaren Araudia, 1982koa; Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko oinarrizko legearen azken xedapenetako lehenengoa; Eusko Legebiltzarreko Erakunde eta Herrizaingo Batzordearen Ebazpena, 1990.eko apirilaren 5ekoa, Ertzaintzaren alorrean Estatutua garatzeko irizpideei buruzkoa; Zerbitzuen Mugaketari buruzko Akordioa, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen eta Ertzaintzaren artekoa;

## PRESIDENCIA

**2163**

LEY 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

### LEY 4/1992, DE 17 DE JULIO, DE POLICIA DEL PAÍS VASCO

Exposición de Motivos

I

La institución policial del País Vasco mereció un tratamiento destacado y singular en el Estatuto: uno de sus artículos más largos, el diecisiete, se destinó enteramente a regular la competencia de la Comunidad Autónoma en esta específica materia, y la disposición transitoria cuarta previó la reserva de ciertas facultades a un órgano mixto como es la Junta de Seguridad y un cierto régimen de provisión de mandos. Esos dos elementos de la Norma Institucional Básica de nuestra Comunidad acreditan y expresan adecuadamente la posición particular que corresponde al régimen de la Policía Autónoma en el proceso de institucionalización de Euskadi.

Sin embargo, una institución como la policía no es algo que se pueda construir de un día para otro. Incluso en un caso como el del País Vasco, en que contamos con antecedentes más o menos remotos o próximos tan notorios como los Miñones, Forales y Mikeletes de los Territorios Históricos y con algunos muy significativos Cuerpos de Policía municipal, la configuración de una policía integral, democrática, civil y eficiente constituye una tarea ardua, a la que es menester dedicar los mejores esfuerzos de cada día.

Ha transcurrido ya más de una década desde que se inició ese proceso de construcción en un contexto socio-político particularmente complicado a estos efectos. Pronto se cumplirán también los diez años desde la fecha en que tomaron posesión de sus cargos los ertzainas de la primera promoción. Se trata, sin duda, de un período de tiempo ya importante, en el que, arrancando del propio texto estatutario, han mediado jalones tan significativos como el Real Decreto 290/1980, de restablecimiento y actualización de Mikeletes, Forales y Miñones, el Reglamento de la Policía de la Comunidad Autónoma del País Vasco de 1982, la disposición final primera de la Ley Orgánica de Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, la Resolución de la Comisión de Instituciones e Interior del Parlamento Vasco de 5 de Abril de 1990 sobre criterios para el desarrollo del Estatuto en materia de Policía Autónoma y el Acuerdo

beste hainbat ihardukcta eta erabaki ondorio handikoak. Horien artean, Polizia Autonomoko Kidegoa, Ertzaintza, finkatzeko prozesuak aipamen berezia merezi du beharbada; Ertzaintzaren finkapena zenbait pertsona eta talde hartara bilduz gertatu da; pertsona eta talde horiek, Kidegoa martxan jartzeko modu eta baldintzei buruzko zalantza-inguru batean, eta politika eta gizarte giroa nolabaitekoa zelarik, jaio berriak ziren euskal erakundeen segurtasuna bermatzeko eta babesteko zeregin zaila bete dute lehen momentutik. Biltze hori arau-esparru egokirik gabe egin behar izan zen, eta, beraz, egoeraren berezitasuna kontuan hartzen zuten ohiz kanpoko tratamenduak erabiltzera behartu zuen.

Beste alde batetik, prozesu honek hurbileko etorkizuneranzko jarraibidea izan dezan, Ertzaintzaren zabalkundea amaitzeko konpromezua dakarkigu, bere ondorio eta eskakizun guztiekin.

Orain arte aipatu diren aurrekari eta gerorako ikuspegiei nahi die erantzun lege honek. Horri begira taiutu da Ertzaintzaren antolakuntza, Ertzaintza Polizia Kidego bat osoa izan dadin, Autonomi Elkarteko lurralde guztiaren segurtasunaren erantzukizuna hartzen duena eta prest dagoena bai lege-hausteen ikerketan bai errudunak zigortzen epaile eta auzitegiei eraginkortasunez laguntzeko. Dagokion eta behar duen mailako estatutu-araubide bat ere ezartzen du legeak, Euskal Herriko polizia guztientzat balio izatea eta Autonomi Elkarteko funtzionarien araubide orokorretik ahalik eta hurbilen egotea nahi dena. Ertzaintzako funtzionarien eskubide sindikalak arautzen dira, bai eta funtzionari horiei interesatzen zaizkien gai publikoetan parte hartzeko modua ere, eta, azkenik, segurtasunerako administrazio-sistema baten taiukera orokorra ezartzen da, poliziaren zereginari lotuta eta harekin erlazionatuta daudenek behar bezalako koordinaketa eta partaidetasunaz, eta erakunde guztien aginpideei begirunea erakutsiz, ihardutea bermatuko duena.

II

1. Euskal Herriko polizia-erakundearen foru-jatorria ukaezina da. Foru-araubidearen eguneratzea kasu honetan aginpide berarizko baten oinarria izateaz gain, Ertzaintza eratzeko modua berezi bihurtzen duena da. Ez genuke ahaztu beharko, halere, Poliziaz ari garelarik, eskubide historikoa elkartearen aginpide baten iturri eta sorburu bilakatu dela. Honegatik behar die lege honek Estatutuaren hamazazpigarren ataleko boskarren idazatiak ireki zituen ahalbideei erantzun. Hori dela eta, arrazoizkotasunak eta eraginkortasunak eskaturik, Miñoiak, Foralak eta Mikeleteak Ertzaintzako Kidegoan sartzea erabakitzen da, baina, Mikeleteen, Foralen eta Miñoien sekzioak mantenduta, lurralde-foralitatearen gaurko irudia zehazki errespetatuz; Mikeleteen, Foralen eta Miñoien sekzioei beren ordezkaritza-zereginak eta usadiozkoak aitortzen zaizkie, eta foru-organoek atxikipen funtzional horri dagozkion aginpide eta ahalmenei eutsiko diete. Miñoien Kidegoan gaur egun dauden funtzionarien bidezko eskubide eta itxarobideei begirunea erakusten zaiela gaineratu behar da, oinarrizko erabaki haren ikuspegitik ahal den eta

de Delimitación de Servicios entre las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado y la Policía Autónoma Vasca, amén de tantas otras actuaciones y decisiones de trascendencia. Entre éstas, merece quizá especial mención el proceso de consolidación del Cuerpo de Policía Autónoma, Ertzaintza, mediante la integración en el mismo de aquellas personas y colectivos que desde un primer momento, en un contexto de incertidumbre sobre el modo y condiciones en que podía ponerse en marcha dicho Cuerpo, y en el marco de una situación politico-social delicada, cumplieron la difícil tarea de garantizar y salvaguardar la seguridad de las entonces incipientes instituciones vascas. Tal integración hubo de producirse careciendo del marco normativo adecuado, lo que obligó a tratamientos extraordinarios que contemplaron la singularidad de la situación.

De otro lado, la secuencia de ese proceso hacia el próximo futuro nos presenta el compromiso de concluir el despliegue de la Ertzaintza, con todas las exigencias correspondientes.

Ésos son los antecedentes y las perspectivas de futuro a los que trata de dar respuesta la presente ley. A ese efecto, se dota a la Ertzaintza de una organización que la capacite para constituirse en un cuerpo de policía integral, responsable de la seguridad en el conjunto del territorio de la Comunidad Autónoma y presto para auxiliar con eficacia a jueces y tribunales en la averiguación del delito y castigo de los culpables. También establece, con el rango adecuado y necesario, un régimen estatutario que se quiere común a todos los policías del País Vasco y lo más próximo posible al general de los funcionarios de la Comunidad. Se regula el ejercicio de los derechos sindicales de los funcionarios de la Ertzaintza, así como el de participación en los asuntos públicos de su interés, y, en fin, se determina el diseño general de un sistema de administración de seguridad que, respetando las competencias de cada ente, asegure la necesaria coordinación y participación de los implicados e interesados en la tarea.

II

1. La raíz foral de la institución policial del País Vasco resulta incuestionable. La actualización del régimen foral no sólo constituye en este caso el fundamento de una competencia claramente específica, sino que también caracteriza el modo de formación de la Policía Autónoma. Tampoco cabe olvidar, sin embargo, que en cuanto a la policía el derecho histórico se ha transmutado en fuente y causa de una competencia comunitarizada. De ahí que esta ley deba dar una respuesta a las posibilidades abiertas en el apartado cinco del artículo diecisiete del Estatuto. A este respecto, por razones de racionalidad y eficacia se opta por la integración de Miñones, Forales y Mikeletes en el Cuerpo de la Ertzaintza, respetando escrupulosamente sin embargo la imagen actual de la foralidad territorial, mediante la subsistencia de las correspondientes secciones de Mikeletes, Forales y Miñones a las que se reconocen sus funciones de representación y tradicionales y respecto de las cuales los órganos forales mantendrán las competencias y facultades correspondientes a esa adscripción funcional. Hay que añadir que se

egoki den punturaino.

Legeak, bestalde, Udalek segurtasun eta poliziari buruz behar duten autonomia eta arlo horietan euskal Administrazioen iharduketa eraginkortasunez antolatzeko eskaria bata bestearekin lotzeko premiaren aurrean jarrera hartzen du. Ildo berean, egungo egoeraren ezaugarriak kontutan harturik, eta Udaltzaingoen ohizko esparru funtzionalaren barruan, udaltzainen eta ertzainen hezikcta eta estatutua berdinak direla nabarmentzen da biziki. Arau horiek aplikatzeko, heziketarako eta birgaikuntzarako ahalegin handia beharko da, ezpairik gabe. Baina hori da, ziur aski, modurik onena geroari begira polizia guztiak beren iharduna burutzeko gai izango direla bermatzeko eta Euskal Herriko Polizia Kidegoen arteko kidetasuna eta komunikazioa lortzeko.

Era berean, kidetzeko beharrezko diren arauak aurrikusten dira eta ekintza-mailaraino doazen koordinaketa eta lankidetza bideak ezartzen, lurralde berean aritzen diren polizia kidegoen aniztasunak askatasunak bermatzeko eta lege-hausteei aurre hartzeko eraginkortasun-maila txikiagotzerik ekarri ez dezan.

2. Lege honek Euskal Herriko Polizien ihardunéko arau nagusiak jasotzen ditu, Polizia demokratiko baten iharduera muin-muinetik ezaugarritu behar dutenak. Jokabide-arautegi labur bat da, gure artean nolabaiteko tradizioa hartzen ari dena, ez bait da ahaztekoa puntu honetan Ertzaintzaren Araudiak duen aitzindari-izaera, dirudienez garrantzizko garapenak izango dituena.

Euskal Herriko polizien estatutu-araubidea ere luze-zabal arautzen da, bai eta haien eskubide sindikalak eta interesatzen zaizkien gaietan parte hartzeko modua ere. Ez dago azpimarratu beharrik estatutu-araubide ondo atondu eta zehatz batek pertsonen erakunde baten funtzionamenduan duen garrantzia, eta batez ere erakunde hori izatez mailakatua bada eta bere gain askatasunak bermatzea bezalako zeregin guztiz ardurazkoa badu. Lege hau erronka horri erantzuten saiatu da euskal funtzio publikoaren araubide orokorretik, premia berezien kaltetan gabe, ahal den hurbilena dagoen lege-araubide egoki batez, eta, bestalde, zuzenean doakienen arteko adostasunik handiena bilatuz, zeinen partaidetzarik gabe nekez lor dezakeen arrakasta pertsonak eta haien askatasun eta ondasunak babesteko asmoak.

Kidegoen barneko egitura eta polizia-karrera arautzeak bai kidegoen dimentsio eta jarrera, bai lanbide honek bere kideak hezi eta garatzeko agertzen dituen berezitasunak kontutan hartu behar izan ditu.

3. Euskal Herriko Polizi-Ikastegiari ageriko leku bat dagokio legearen sisteman eta euskal Poliziaren eratze-prozesuan.

respetan los derechos y expectativas legítimas de los actuales funcionarios de Miñones, hasta el límite de lo posible y de lo congruente con aquella decisión fundamental.

La ley toma posición también respecto de la necesidad de conjugar la proyección de la autonomía municipal en materia de seguridad y policía, con el requerimiento de ordenar eficazmente la actividad de las Administraciones vascas en este campo. A este respecto, teniendo en cuenta las características del contexto actual, y dentro del ámbito funcional tradicional de las Policías Locales, se incide con intensidad en la identidad de estatuto y formación de los policías locales y de los miembros de la Ertzaintza. La aplicación de esas normas requerirá, sin duda, un importante esfuerzo de formación y reciclaje. Pero se trata también, probablemente, de la mejor manera de garantizar a futuro que todos los policías sean competentes para el desarrollo de su misión y de conseguir la homogeneidad e intercomunicación entre los Cuerpos de Policía del País Vasco.

Por otro lado, se prevén las normas homogeneizadoras necesarias y se establecen mecanismos de coordinación y colaboración que descienden al nivel operativo, en aras de evitar que la pluralidad de cuerpos policiales actuantes sobre un mismo territorio se traduzca en un menor nivel de eficacia en la garantía de las libertades y prevención del delito.

2. La presente ley acoge las normas generales de actuación de las policías del País Vasco, que han de caracterizar esencialmente la actuación de una policía democrática. Se trata de un breve código de conducta, que ya va teniendo cierta tradición entre nosotros, pues no cabe olvidar el carácter pionero del Reglamento de la Ertzaintza en este punto, y que parece llamado a tener importantes desarrollos.

También se regula con amplitud el régimen estatutario de los policías del País Vasco, y los derechos sindicales y la participación en los asuntos de su interés. No es preciso abundar en la importancia que un régimen estatutario bien diseñado y preciso tiene en el desenvolvimiento de una organización de personas, esencialmente jerarquizada y que tiene a su cargo una misión tan delicada como la garantía de las libertades. A ese reto ha tratado de dar respuesta esta ley con un régimen jurídico adecuado, lo más próximo posible al general de la función pública vasca, sin perjuicio de las necesarias particularidades, y buscando de otro lado el máximo consenso posible de los más directamente afectados sin cuya participación difícilmente puede tener éxito la empresa de proteger a las personas, sus libertades y bienes.

La regulación de la estructura interna de los cuerpos y la carrera policial ha debido tener en cuenta la dimensión y posición respectiva de aquéllos y las particularidades que esta profesión presenta en cuanto a la formación y desarrollo de sus miembros.

3. A la Academia de Policía del País Vasco corresponde un lugar destacado en el sistema de la ley y en el proceso de configuración de la Policía vasca.

Polizia bat ezin da eraginkorra izan bertako kideek hezikela ona, burutu beharreko zereginarekin egokitua eta etengabe eguneratua izan ezean. Gainera, polizia ihardunak agenteen hizkuntz gaitasun egokia eskatzen du, herritarren hizkuntz eskubideei erantzun ahal izateko.

Heziketarako eta gaikuntzarako eginkizun garrantzitsu hori, Ertzaintzara ez ezik, Udaltzaingoetara ere hedatu beharra dago, eta horrek erakunde autonomo bat eratzea aholkatu du, zeinaren organo araupetzaile gorenek partaidetasun zabala onartuko duten eta egokiro hornitua eta zaindua izan beharko duen.

ATARIKO IDAZPURUA

**1. atala.-**

Honako hauek dira lege honen helburuak: Euskal herriko Autonomi Elkarteko segurantza-administrazioa antolatzea, udaltzaingoen arteko koordinaketa bideratzea eta euskal herri-administrazioen menpeko Polozia-Kidegoetako langilegoaren berarizko jaurpidea araupetzea.

**2. atala.-**

Lege hau ezarriko zaie ondoren adierazten diren Administrazioen menpeko Polizia Kidegoei:

a) Autonomi Elkarteko Administrazioa.

b) Toki-Administrazioa.

**3. atala.-**

Euskal Herriko Polizia Kidegoek, pertsonak beren eskubide eta askatasunez baliatu ahal izan daitezen babes-neurriak hartzea eta herritarren segurtasuna bermatzea dute beren egiteko, horretarako, legearen arauera, pakezko elkarbizitza eta pertsonak eta horien ondasunak babesteaz arduratu behar dute.

**4. atala.-**

Herritarren sagurtasunerako Euskal Autonomi Elkarteko politika, gizarte-ongundea lortzera bideratuko da. Horretarako, gizarte-bazterketari aurre egiteko Euskal Herriko administrazio ezberdinek burutu ditzaten besteekin koordinatuko da eta agente sozial desberdinen eskakizunak hartuko ditu kontutan.

I. IDAZPURUA
SEGURTASUN-ADMINISTRAZIOARI BURUZ

I. ATALBURUA
ORGANOAK ETA HAIEN AGINPIDEAK

I. SAILA
HERRIZAINGO SAILA

**5. atala.-**

1.- Herrizaingo Saila da herritarren segurtasunerako Autonomi Elkarteko politikaren organo ardura-

No puede existir una policía eficiente si sus miembros no disponen de una buena formación, adecuada a su específica misión y permanentemente actualizada. Además, la actividad policial precisa la adecuada capacitación lingüística de los agentes, en orden a corresponder a los derechos de ese orden de los ciudadanos.

La importancia de esta tarea formativa y de capacitación, que ha de proyectarse no sólo sobre la Ertzaintza, sino también respecto de las Policías Locales, ha aconsejado la configuración de un organismo autónomo al efecto, cuyos máximos órganos rectores se abran a una amplia participación y que habrá de ser convenientemente dotado y atendido.

TÍTULO PRELIMINAR

**Artículo 1.-**

La presente ley tiene por objeto la ordenación de la administración de seguridad de la Comunidad Autónoma del País Vasco, la coordinación de las policías locales y la regulación del régimen específico del personal de los Cuerpos de Policía dependientes de las administraciones públicas vascas.

**Artículo 2.-**

La presente ley será de aplicación a los Cuerpos de Policía dependientes de:

a) La Administración de la Comunidad Autónoma.

b) La Administración local.

**Artículo 3.-**

Los Cuerpos de Policía del País Vasco tienen como misión proteger el libre ejercicio de los derechos y libertades y garantizar la seguridad ciudadana, a cuyo efecto deben velar por pacífica convivencia y proteger las personas y sus bienes de acuerdo con la ley.

**Artículo 4.-**

La política de la seguridad ciudadana de la Comunidad Autónoma del País Vasco se orientará al logro del bienestar social. A tal efecto, se coordinará con aquellas otras que desarrollen las distintas administraciones del País Vasco para dar respuesta a la marginación social, y atenderá a las demandas de los distintos agentes sociales.

TÍTULO I
DE LA ADMINISTRACIÓN DE LA SEGURIDAD

CAPÍTULO I
ÓRGANOS Y SUS COMPETENCIAS

SECCIÓN 1º.
EL DEPARTAMENTO DE INTERIOR

**Artículo 5.-**

1.- El Departamento de Interior, de conformidad con los objetivos generales establecidos por el

duna, Jaurlaritzak ezarritako helburu orokorren arabera.

2.- Jaurlaritza goren aginpidedun izanik, hori Lehendakariaren bidez egiteratzen duela, Herrizaingo-Sailari dagokio Ertzaintzaren eta honen lagungarritarako zerbitzuen burugoa eta goren zuzendaritza ere, zerbitzu horiei buruzkoan honako zeregin hauetan aritzen dela:

a) Zerbitzuak zuzentzea, koordinatzea eta ikuskatzea.

b) Egitamuketa orokorra eta egitamu tekniko-operatiboen koordinaketa tekniko-operatiboa egiten.

c) Ekonomi iharduerako planak eta egitasmoak prestatzea eta horiek koordinatu eta burutzea, indarrean dagoen legediaren arabera, Gobernu-Kontseiluari edo bestelako organoei dagozkienak izan ezik.

d) Ikerketa orokorrak egitea, antolakuntzari, koordinaketari eta garapenari buruz.

e) Ertzaintzako funtzionarien estatutu-araubidea aplikatu eta ikuskatzea, lege honek agintzen duenaren indarrez Gobernu-Kontseiluari dagozkion ahalmenak edo beste organo batzuei eman zaizkienak izan ezik, eta Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkaritza zehaztea funtzionarien ordezkariekin negoziaketan aritzeko.

f) Ertzaintzaren laguntzarako zerbitzuei atxikitako langilegoa kudeatzen, Euskal Herriko funtzio publiko osoari ezartzekoak diren oinarri-irizpide nagusiei jarraiki.

3.- Herrizaingo-Sailari dagokio Ertzaintzaren eta honen lagungarritarako zerbitzuen eta Udaltzaingoen arteko koordinazioa sustatzea, beti ere, azken hauen egitura eta aribide-aldetikako burujabetasunari begirune izanez.

4.- Aurreko idazatian ohartemandako aginpideak, indarrean dagoen araubideak ematen dizkion bestelako aginpideen kaltetan gabe ulertuko dira, eta Herrizaingo Saileko organoek egiteratu beharko dituzte haren Egitura Organikoaren Dekretuan horretarako ezartzen den banaketaren arabera.

Gobierno, es el órgano responsable de la política de seguridad ciudadana de la Comunidad Autónoma.

2.- Bajo el mando supremo del Gobierno, que lo ejerce a través del Lehendakari, corresponde también al Departamento de Interior la jefatura y superior dirección del Cuerpo de Policía Autónoma o Ertzaintza y sus servicios auxiliares, respecto de los que ejerce en particular las siguientes funciones:

a) La dirección, coordinación e inspección de los servicios.

b) La planificación general y coordinación técnico-operativa de los planes.

c) La elaboración de los planes y proyectos de actuación económica, y la coordinación y ejecución de los mismos, excepto aquellos que correspondan al Consejo de Gobierno u otros órganos, de conformidad con la legislación vigente.

d) La elaboración de estudios generales relativos a organización, coordinación y desarrollo.

e) La aplicación y supervisión del régimen estatutario de los funcionarios de la Ertzaintza, con excepción de aquellas potestades que correspondan al Consejo de Gobierno o estén atribuidas a otros órganos en virtud de lo dispuesto en esta ley, y la determinación de la representación de la Administración de la Comunidad Autónoma en la negociación con los representantes de los funcionarios.

f) La gestión del personal adscrito a los servicios auxiliares de la Ertzaintza, de conformidad con los principios generales aplicables al conjunto de la función pública del País Vasco.

3.- Corresponde al Departamento de Interior la promoción de la coordinación de la Ertzaintza y sus servicios auxiliares con las Policías locales, respetando en todo caso la autonomía orgánica y funcional de estas últimas.

4.- Las competencias previstas en el apartado anterior se entenderán sin perjuicio de cualesquiera otras que le atribuya la normativa vigente, y su ejercicio corresponderá a los órganos del Departamento conforme a lo previsto en su estructura orgánica.

## 2. SAILA
## EUSKAL HERRIKO POLIZI-IKASTEGIA

6. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizi-Ikastegia eratzen da, administrazio-izaera duen eta Herrizaingo Sailari atxikita dagoen erakunde autonomo gisa, zeinak bere zereginak bete ahal izateko berezko lege-nortasuna eta ihardunteko gaitasun osoa duen.

2.- Ikastegi horren jaurtze-organoak hauexek dira:

a) Kontseilu Araupetzailea.

b) Zuzendaria.

7. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizi-Ikastegiari dagokio:

a) Ertzaintzako eskala eta kategorietara sartzeko aukeraketa-bidearen oinarriak ezartzea, aukeraketa-bide horretarako deialdia egitea, epaimahai kalifikatzailea izendatzea eta, orohar, aukeraketa burutu ahal izateko bete beharreko esleipen oro betetzea.

b) Toki-Administrazioaren menpeko Polizia Kidegoetako eskala eta kategoria desberdinetan sartzeko oinarrizko arauak taiutzea, zeinak Ertzaintzako eskala eta kategoria baliokideentzat ezarritakoen pareko irizpideetara egokituko diren, eta, bereziki, guztiek nahitanahiez egin beharrekoak gerta litezkeen aukeraketa-saioetako programak, edukia eta egitura prestatzea.

c) Euskal Herriko Polizia osatzen duten Polizia Kidegoetako eskala eta kategorietara sartu aurretik egin beharreko heziketa ikastaroak eta praktika aldiak nahiz haien heziketa eta trebakuntzarako egin beharreko beste edozein programatzea, antolatzea eta burutzea. Horretarako, aldian-aldiro aipatu Kidegoen heziketa beharrak aztertuko ditu Institutuak.

d) Udalbatzen menpeko Polizia Kidegoentzako heziketa-planek bete beharreko oinarrizko irizpideak taiutzea, horien garapena koordinatzea eta udalerri horiei laguntzea plan horien egiterapenean.

e) Dagokion Udalbatzak haren gain uzten duenean, toki-Administrazioaren menpeko Polizia Kidegoetako eskala eta kategorietara sartzeko aukeraketa-bideak burutzea. Honako hau ere egin ahal izango du: Udalerriei beren Polizia Kidegoetako funtzionarien aukeraketari buruzko laguntza eta sorospen teknikoa ematea, eta era berean, epaimahaiei beren zeregina behar bezala burutzeko laguntza eta sorospide teknikoa ematea toki-Administrazioek deitutako au-

## SECCIÓN 2º.
## ACADEMIA DE POLICÍA DEL PAÍS VASCO

Artículo 6.-

1.- Se crea la Academia de Policía del País Vasco, como organismo autónomo de carácter administrativo adscrito al Departamento de Interior, dotado de personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar para el cumplimiento de sus fines.

2.- Los órganos de gobierno de dicha Academia son:

a) El Consejo Rector

b) El Director.

Artículo 7.-

1.- Corresponde a la Academia de Policía del País Vasco:

a) Establecer las bases de los procesos selectivos para el ingreso en las escalas y categorías de la Ertzaintza, convocarlos, designar a los tribunales calificadores y, en general, cuantas atribuciones correspondan al desarrollo de los procesos selectivos.

b) Elaborar las reglas básicas para el ingreso en las distintas escalas y categorías de los Cuerpos de Policía dependientes de la Administración local, que se ajustarán a criterios análogos a los establecidos para las de la Ertzaintza que sean equivalentes, y en particular los programas, contenido y estructura de los procesos selectivos que hubieran de resultar comunes y de obligada aplicación.

c) Programar, organizar y desarrollar los cursos de formación y períodos de prácticas previos al ingreso en las Escalas y Categorías de los Cuerpos que integran la Policía del País Vasco y cualesquiera otros destinados a su formación y perfeccionamiento. A tales efectos, la Academia evaluará periódicamente las necesidades formativas de dichos Cuerpos.

d) Elaborar los criterios básicos a los que habrán de ajustarse los planes de formación de los funcionarios de los Cuerpos de Policía dependientes de los municipios, coordinar su desarrollo y prestar asistencia a las mismas en su ejecución.

e) Cuando así se le encomiende por el municipio respectivo, la ejecución de los procesos selectivos para el ingreso en las escalas y categorías de los Cuerpos de Policía dependientes de la Administración local. Asimismo, podrá prestar colaboración y asistencia técnica a los municipios en materias relativas a la selección de los funcionarios pertenecientes a sus Cuerpos de Policía, y facilitar a los tribunales, en los procesos selectivos convocados por aquéllas, la cola-

kerakcta-bideetan.

f) Autonomi Elkartean herritarrak babestu eta laguntzeko zereginak dituzten erakunde publiko nahiz pribatuekin lankidetzan aritzea, hauen helburuak lortzeko egokiak izan daitezkeen ekintzak, hezikета eta zabalkunde alorrekoak, sustatu eta burutuz.

g) Euskal Herriko Poliziako funtzionarientzat, hezitzeko eta informazioa emateko izango diren aldian-aldiko argitalpenak gertatzea eta, orohar, Euskal Herriko Poliziako funtzionariak profesional mailan kualifikatzeko ekintzak egitea, beren zereginak betetzeak kasu bakoitzean eskatzen duen ezagupen eta espezializazioa emango zaielarik.

h) Lege honek izenda diezazkion edo beste lege nahiz manuek aitor diezazkioten gainerakoak.

2.- Euskal Herriko Polizi-Ikastegiak, hala eskatzen dioten toki-erakundeen heziketa-zentruen gain utz dezake haien menpeko Polizia Kidegoetako eskala eta kategorietara sartu aurretik egin beharreko heziketa-ikastaroen eta praktika-aldien antolakuntza eta burutzapena.

3.- Euskal Herriko Polizi-Ikastegia segurtasun-alorrean arduradun diren organoekin lankidetzan arituko da, Herrizaingo Sailak ematen dituen artezpide orokorrak jarraituz.

**8. atala.-**

1.- Honako hauek izango dira Kontseilu Araupetzaileko kide:

a) Herrizaingo Sailburua, Lehendakari izango dena.

b) Herrizaingo Saileko hiru ordezkari, Herrizaingo Sailburuak izendatuko dituenak goi-kargudun nahiz Autonomi Elkarteko Administrazioko karrerako funtzionari direnen artean.

c) Euskal Herriko Polizi-Ikastegiko Zuzendaria, Idazkari izango dena.

d) Udalerrietako hiru ordezkari, Autonomi Elkartean indar gehien duen Euskal Herriko Udalen Elkarteak edo Federakundeak izendatuko dituenak, Udaltzainen egoera ezberdinen ugaria kontutan izanik.

e) Ertzaintzako funtzionarien ordezkari bat, Kidego horretan indarrik gehien duen sindikatuak izendatuko duena, eta Udal Poli-

boración material y el auxilio técnico que les sean precisos para el adecuado ejercicio de sus funciones.

f) Colaborar con entidades públicas o privadas dedicadas a tareas de protección y ayuda al ciudadano en la Comunidad Autónoma, promoviendo y desarrollando aquellas actividades de carácter formativo o de divulgación que puedan resultar adecuadas para el cumplimiento de sus fines.

g) Elaborar publicaciones periódicas de carácter formativo e informativo destinadas a los funcionarios de la Policía del País Vasco y, en general, el ejercicio de cuantas actividades se dirijan a la cualificación profesional de estos últimos, procurándoles los conocimientos y la especialización que en cada caso exija el desempeño de sus funciones.

h) Las demás que le atribuya la presente ley o le reconozcan otras leyes o disposiciones.

2.- La Academia de Policía del País Vasco podrá delegar en los centros de formación de aquellas entidades locales que así lo soliciten la organización y desarrollo de los cursos de formación y periodos de prácticas previos al ingreso en las escalas y categorías de los Cuerpos de Policía dependientes de las mismas.

3.- La Academia de Policía del País Vasco actuará en coordinación con los órganos responsables en materia de seguridad y con sujeción a las directrices generales emanadas del Departamento de Interior.

**Artículo 8.-**

1.- El Consejo Rector estará integrado por los siguientes miembros:

a) El Consejero de Interior, que actuará como Presidente.

b) Tres representantes del Departamento de Interior, designados por su titular, de entre quienes ostenten la condición de alto cargo o funcionario de carrera de la Administración de la Comunidad Autónoma.

c) El Director de la Academia de Policía del País Vasco, que actuará como Secretario.

d) Tres representantes de los municipios, designados por la Asociación o Federación de Municipios Vascos con mayor implantación en la Comunidad Autónoma, teniendo en consideración la variedad de situaciones de las Policías locales.

e) Un representante de los funcionarios de la Ertzaintza, designado por la organización sindical con mayor implantación en dicho

zietako funtzionarien beste ordezkari bat, Euskal Herriko Udal Administrazioan indarrik gehien duen sindikatuak izendatuko duena. Dagokion Kidegoaren barruan, iharduneko zerbitzu egoeran edo bigarren ihardueran egoeran dauden karrerako funtzionarien artean egingo dira izendapenok.

2.- Honako zeregin hauek ditu Kontseilu Araupetzaileak:

a) Institutuaren aurrekontuen aurregitasmoari buruzko txostena egitea eta haren urteroko memoria onestea.

b) Institutuak burutu beharreko urteroko ekintza-plana onestea, zuzendariak proposaturik, eta aldizka-aldizka plan horren garapenaren jarraipena egitea.

c) Ikastegiko barne-jaurpideari buruzko erabaki orokorrak onartu aurretik, horiei buruzko txostena egitea.

d) Zuzendaritzaren saloz, aukeraketako eta gaikuntzako plan orokorrak, eta bai Ikastegiak, bere egitekoen eremuan, beste erakunde publiko nahiz pribatuekin izenpetu ditzakeen ituneak ere, onartzea.

e) Bere antolakuntza eta funtzionamendurako arauak onestea. Akordioen araubideari dagokionean, arau horiek Administrazioaren ihardunbidea arautzeko legepidean organo kolejiatuentzat ezarritakoari lotuko zaizkio.

f) Institutuari esleitu zaizkion zereginen esparruan, bere kideetako edozeinek haren iritzipean jartzen dituen gai oro aztertu eta ondoren horri buruzko txostena egitea, eta egoki eriztcn dien ekintzak Zuzendaritzari eskatzea eta proposatzea.

**9. atala.-**

1.- Zuzendariak dauka Euskal Herriko Polizi-Ikastegiko legezko ordezkotza, eta berari dagokio haren zerbitzu eta ekintzak zuzentzea, kudeatzea, koordinatzea eta ikuskatzea, hala nola erakunde autonomoari egotzitako helburuak lortzeko ahalmen guztiez baliatzea, beste organo batzuei eman ez zaizkien ahalmenez alegia.

2.- Ikastegiko Zuzendaria, Herrizaingo-Sailburuaren saloz, Jaurlaritzaren dekretuz izendatuko eta kenduko da kargutik.

**10. atala.-**

1.- Euskal Herriko Polizi-Ikastegiko lanpostuak lanitunepeko langilegoarentzat gordetakoen artean sailkatuko dira. Eman beharreko irakaspenen eduki edo espezialitateari begira, irakaskuntzarako izan, aukeraketa nahiz heziketa arlokoa, eta

Cuerpo, y otro de los funcionarios de los Cuerpos de Policía Local, designado por la organización sindical con mayor implantación en la Administración Local del País Vasco. La designación deberá recaer entre quienes ostenten la condición de funcionario de carrera en el Cuerpo correspondiente y se hallen en situación de servicio activo o segunda actividad.

2.- Corresponde al Consejo Rector:

a) Aprobar el anteproyecto de presupuestos de la Academia y su memoria anual.

b) Aprobar, a propuesta del Director, el plan anual de actividades de la Academia y cuidar de su cumplimiento.

c) Informar, previamente a su aprobación, las disposiciones de carácter general sobre régimen interno de la Academia.

d) Aprobar, a propuesta de la Dirección, los planes generales de selección y formación, así como los convenios que la Academia pueda suscribir con otras entidades públicas o privadas en el ámbito de sus funciones.

e) Aprobar sus normas de organización y funcionamiento, que se ajustarán, en cuanto al régimen de acuerdos, a lo dispuesto para los órganos colegiados en la legislación del procedimiento administrativo.

f) En el marco de las funciones asignadas a la Academia, conocer e informar cuantos asuntos sean sometidos a su consideración por cualquiera de sus miembros y requerir y proponer a la Dirección las actuaciones que estime convenientes.

**Artículo 9.-**

1.- El Director ostenta la representación legal de la Academia de Policía del País Vasco, y a él corresponde la dirección, gestión, coordinación e inspección de sus servicios y actividades, así como el ejercicio de todas aquellas facultades, para el cumplimiento de los fines encomendados al organismo autónomo, que no se encuentren atribuidas a otros órganos.

2.- El Director de la Academia será nombrado y cesado por decreto del Gobierno, a propuesta del Consejero de Interior.

**Artículo 10.-**

1.- Los puestos de trabajo de la Academia de Policía del País Vasco se clasifican como reservados a personal laboral. En atención a su contenido o especialidad, se determinarán los puestos de trabajo que tengan atribuidas funciones de carácter

Euskal Herriko Poliziako funtzionarientzat gordeko diren lanpostuak zehaztuko dira.

2.- Era berean, aldi baterako irakasle-lanak egotzi ahal izango zaizkie Euskal Herriko Poliziako funtzionariei; lan horiek zerbitzu-manualdi gisa egingo dira, horiek emateko publizitate, merezimendu eta gaitasun-irizpideei jarraituko zaielarik.

3.- Aurreko zatian aipatutako zerbitzu manualdiak lau urte baino gehiago luzatuko ez den eperako izango dira, eta gehieneko epe bereko beste aldi baterako luzatu ahalko dira, zerbitzu horiek bete ditzaten funtzionariek euren jatorrizko lanpostuetan zehaztutako lan-sariak jaso ahal izango dituztelarik. Halere, aipatu lan-sariak bete beharreko lanpostuei dagozkienak baino txikiagoak izan edo bete beharreko egitekoak bateragarriak gerta daitezenean, doakionak horien biren aldaroaren hainako osagarria jasoko du.

11. atala.-

1.- Euskal Herriko Polizi-Ikastegiaren ogasuna eta baliabideak hauek izango dira:

a) Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorretan sartutako kredituak.

b) Bereak dituen edo atxiki zaizkion ondasunak eta eskubideak, eta horien ekoizkin eta etekinak.

c) Erakunde publiko nahiz pribatuen edo partikularren dirulaguntzak, ekarketak eta maileguak.

d) Ikastegiaren ekintzek haren aginpideen eremuan ekar ditzaketen diru-sarrerak.

e) Egotz lekizkiokeen bestelako baliabideak.

2.- Autonomi Elkartearen Administrazioaren jabetzakoak diren mota guztietako ondare zein eskubideak Ikastegiaren menpe gelditukoo dira baldin eta lege honetan Ikastegi honi ematen zaizkion zereginak betetzeari lotuta badaude.

II. ATALBURUA
POLIZI-ZERBITZURAKO DATU-BILKETARAKO ZENTRUA

12. atala.-

Herrizaingo Sailaren egitura organikoaren baitan Polizi-Zerbitzurako Datu-Bilketarako Zentrua eratzen da, beren zereginak betetzeko, baita baimenaren jabe direnei horiek jakitera emateko ere, polizia zerbitzuei beharrezko zaizkien datuak bildu, jaso, gertatu, sailka-

docente, selectivo o de formación, cuyo desempeño se reserve a funcionarios de la Policía del País Vasco.

2.- Asimismo, podrá atribuirse a los funcionarios de la Policía del País Vasco el ejercicio temporal de funciones de carácter docente, selectivo o de formación, que se llevará a cabo en régimen de comisión de servicios, atendiendo en su concesión a los principios de publicidad, mérito y capacidad.

3.- Las comisiones de servicio previstas en el apartado anterior podrán ser conferidas por un período no superior a cuatro años, prorrogable por otro de igual duración máxima, y los funcionarios que las desempeñen percibirán las retribuciones que tuvieran señaladas en su puesto de trabajo de origen. Ello no obstante, cuando dichas retribuciones resulten inferiores a las de los puestos de trabajo con que se correspondan o resulten asimilables las funciones desempeñadas, el interesado percibirá un complemento por la diferencia.

Artículo 11.-

1.- La hacienda y los recursos de la Academia de Policía del País Vasco estarán constituidos por:

a) Los créditos consignados dentro de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

b) Los bienes y derechos de que sea titular o tenga adscritos, y los productos y rendimientos de los mismos.

c) Las subvenciones, aportaciones y préstamos de entidades públicas o privadas, o de particulares.

d) Los ingresos que puedan producir las actividades de la Academia en el ámbito de sus competencias.

e) Cualesquiera otros recursos que pudieran serle atribuidos.

2.- Quedarán afectados a la Academia los bienes y derechos de toda índole, de titularidad de la Administración de la Comunidad Autónoma, que se hallen vinculados al ejercicio de las funciones que en esta ley se le atribuyen.

CAPÍTULO II
EL CENTRO DE ELABORACIÓN DE DATOS PARA EL SERVICIO POLICIAL

Artículo 12.-

Se crea en la estructura orgánica del Departamento de Interior el Centro de Elaboración de Datos para el Servicio Policial, como órgano administrativo para la recogida, depósito, elaboración, clasificación y conservación, en ficheros automatizados con soporte

tu eta gordetzeko izango den administrazio-organo gisa. Hori, euskarri fisikodun fitxategi automatizatuen bidez egingo da.

13. atala.-

1.- Polizi-Zerbitzurako Datu Bilketarako Zentruaren funtzionamendua indarrean dauden nazioartemailako itunectan agindutakoari, norbanakomailako datuen erabilera automatikotua arautu dezan Lege Organikoari eta Euskal Herriko erakundeek fitxategi publikoen araupeketarako eman ditzaten legepideari egokituko zaie.

2.- .Araudiz zedarritu ahal izango da Polizi-Zerbitzurako Datu-Bilketarako Zentrua osa osa dezaten fitxategietako organu arduraduna, baita horren egiturakcta eta osotasun eta segurantzako baldintzak ere, eta guztia, aurreko zenbakian esandako legepidean ezarritakoari jarraiki.

14. atala.-

1.- Polizi-helburutarako bilbutako norbanako-mailako datuen argipideak jakitera ematean erasota utzi beharko da jakitera ematearen gai diren datu eta argibideen zehaztasun eta fidagarritasun maila.

2.- Polizi-helburutarakotzat izendatutako norbanako-mailako datuetarako sarrera eskatu ahal izango dute:

a) Epailariak, Epaimahaiak nahiz Herri-Salataritzako kideak, beren aginpideen eremuan sartzen den ikerlana aurrera eramateko.

b) Auzi-Poliziaren Banakoko Buruak, legeen arabera honi dagozkion egitekoen eremuan aurrera eramandako ikerlan-aldian bidezko interesik egon dadinean.

c) Beste polizi-banakoko Buruak edo banakoetako burueк, herritarren segurtasunerako arrisku zehatzei aurre hartu ahal izateko, bere egitekoetan dihardutela argipide horiek beharrezko izan ditzatenean eta legeek beren gain uzten dituzten aginpide eta gaitasunen esparruan.

Beste polizi-taldeetako kideek sartu ahal izatea erabili beharrezko lankidetasun-irizpideei atxikiz gauzatuko da eta irizpideok, beti ere, aurreko b) eta c) hizkietan ematen diren oinarri-irizpideei egokituko zaizkie.

3.- Atal honetako 1 idazatian esandako datuak administrazioko beste organuei nahiz norbanakoei jakitera eman, aurreko 13. ataleko 1 idazatian esandako legepidean zedarri daitezen baldintza eta kasuetan eman ahal izango dira, beste inoiz ez.

físico, de datos que sean precisos a los servicios policiales para el ejercicio de sus funciones, así como de su comunicación a los sujetos autorizados.

Artículo 13.-

1.- El funcionamiento del Centro de Elaboración de Datos para el Servicio Policial se ajustará a lo dispuesto en los convenios internacionales en vigor, a la Ley Orgánica que regule el tratamiento automatizado de datos de carácter personal y a la legislación que para la regulación de los ficheros públicos dicten las instituciones del País Vasco.

2.- Podrá determinarse reglamentariamente el órgano responsable de los ficheros que integren el Centro de Elaboración de Datos para el Servicio Policial, así como su estructuración y condiciones de integridad y seguridad, todo ello de conformidad con lo establecido en la legislación referida en el número anterior.

Artículo 14.-

1.- Las comunicaciones de información de datos de carácter personal recogidos para fines policiales habrán de dejar constancia del grado de exactitud o fiabilidad de los datos e informaciones de cuya comunicación se trate.

2.- Podrán recabar el acceso a los datos de carácter personal consignados para fines policiales:

a) Un Juez, Tribunal o miembro del Ministerio Fiscal para el desarrollo de una investigación comprendida en el ámbito de sus competencias.

b) El Jefe de la Unidad de Policía Judicial cuando exista un interés legítimo en el curso de una investigación desarrollada en el ámbito de las funciones que le atribuyen las leyes.

c) El Jefe o los jefes de otras unidades policiales cuando precisen tal información en el ejercicio de sus funciones al objeto de prevenir peligros concretos para la seguridad ciudadana y en el marco de las competencias y atribuciones que les encomiendan las leyes.

El acceso de los miembros de otros cuerpos de policía se habilitará con sujeción a los criterios de coordinación aplicables y se ajustarán en todo caso a los principios contenidos en las letras b) y c) precedentes.

3.- La comunicación de los datos contemplados en el apartado 1 de este artículo a otros órganos administrativos o personas privadas, sólo podrá producirse en las condiciones y supuestos determinados en la legislación referida en el apartado 1 del artículo 13 anterior.

15. atala.-

1.- Eusko Legebiltzarreko Batzorde bat arduratuko da aurreko 13. atalean adierazitako aginduak bete daitezenaz eta emango ditu egoki izan daitezen baimen eta oharpideak.

2.- Aurreko idazatian aipatzen den kontrol hori, programak aldizka-aldizka egiaztatuz egingo da eta eska ditzann eta emango zaizkion datu nahiz informazioaren bidez, zoriz aterako direnak eta izen-erreferentziarik izango ez dutenak.

3.- Batzordeak agindu ahal izango du Datu Bilketarako Zentruan jasota dauden datuen artetik gezurrezkoak edo akasdunak direnak nahiz, jasoak egoteagatik, administrazio-egintza horrek kaltetuak gertatzen diren funtsezko eskubideen aurrikuspen araupetzaileak hausten dituzten datuak kentzeko, zuzentzeko edo sartzeko.

III. ATALBURUA
EUSKAL POLIZIA KONTSEILUA

16. atala.-

1.- Ertzaintzaren Kontseilua sortzen da, berdineango erakunde gisa, Ertzaintzaren proposamen eta kontsultatarako.

2.- Kontseiluak Herrizaingo Sailburua izango du buru, eta Herrizaingo-Saileko bost ordezkarik eta Kidegoko beste bost funtzionarik osatuko dute.

3.- Herrizaingo Sailburuari dagokio Herrizaingo Saileko ordezkariak izendatzea eta kargutik kentzea.

4.- Funtzionarien ordezkariak hauteskunde-ordezkaritza sistemaren bidez izendatuko dira, atalburu honetan eta bere egiterapenerako ematen den araudian ezarritakoaren arabera.

17. atala.-

Honako zeregin hauek ditu Ertzaintzaren Kontseiluak:

a) Lanpostuak betetzeko egiten diren lehiaketak burutzeko erabili beharreko irizpideei buruzko proposamenak egitea.

b) Lanbide estatutuari buruzko kontsultei erantzutea.

c) Lan-teknika eta metodoak berritzeko programen prestakuntzan laguntzea.

d) Egoki den erabakia hartu aurretik, hutsegite oso astunak direla eta Kidegoko funtzionarien kontra izapidetzen diren diziplinazko espedienteetan hala nola Kidegoaren ordezkarien edo delegatu sindikalen kontra izapidetzen diren espediente guztietan txostenak egitea. Era berean, aldian-al-

Artículo 15.-

1.- Una Comisión del Parlamento Vasco velará por el cumplimiento de las disposiciones señaladas en el artículo 13 precedente y emitirá las autorizaciones e instrucciones procedentes.

2.- El control a que hace referencia el párrafo anterior se ejercerá mediante verificaciones periódicas de los programas y a través de los datos e informaciones que solicite y que le serán suministrados, extraídos al azar y sin referencias nominativas.

3.- La Comisión podrá ordenar la cancelación, corrección o integración de aquellos datos depositados en el Centro de Elaboración, que sean inciertos, incorrectos o cuyo depósito viole las previsiones reguladoras de los derechos fundamentales afectados por el desarrollo de tal actividad administrativa.

CAPÍTULO III
EL CONSEJO DE LA ERTZAINTZA

Artículo 16.-

1.- Se crea el Consejo de la Ertzaintza como órgano paritario, de consulta y propuesta de la Ertzaintza.

2.- El Consejo, bajo la presidencia del Consejero de Interior, estará integrado por cinco representantes del Departamento de Interior y otros cinco de los funcionarios del Cuerpo.

3.- La designación y cese de los representantes del Departamento de Interior corresponderá a su titular.

4.- Los representantes de los funcionarios se designarán mediante el sistema de audiencia electoral, atendiendo a lo dispuesto en este Capítulo y a la normativa reglamentaria que se dicte en su desarrollo.

Artículo 17.-

Corresponde al Consejo de la Ertzaintza:

a) Formular propuestas relativas a los criterios de aplicación en el desarrollo de los concursos para la provisión de puestos de trabajo.

b) Evacuar consultas en materias relativas al estatuto profesional.

c) Participar en la elaboración de los programas de modernización de los métodos y técnicas de trabajo.

d) Con carácter previo a la adopción de la resolución que proceda, informar en los expedientes disciplinarios que se instruyan por faltas muy graves contra funcionarios del Cuerpo y en todos aquellos que se instruyan contra sus representantes o delegados sindicales. Igualmente, cono-

diro Kidegoko funtzionarien aurka hasitako diziplinazko espedienteen eta horiei buruzko erabakiaren eta birgaikuntzen berri izango du.

c) Estatutu araubidearen inguruko alorrei eragiten dien lege aurregitasmo eta xedapen orokorren egitasmoei buruzko txostenąk egitea hilabeteko epean.

f) Bere antolakuntza eta funtzionamendurako arauak onestea. Akordioen araubideari dagokionean, arau horiek, Administrazioaren ihardunbidea arautzeko indarrean dagoen araudian organo kolegiatuentzat ezarritakoari lotuko zaizkio.

g) Ertzaintzako langilego-politikari buruzko neurriak eztabaidatu eta proposatzea, batez ere, sarrerako sistemei, lantokien zerrendei, sustapenari eta lanbide-karrerari, eta lansarien ezarpenari lotutako arloetan, baita berarizko eta ekoizkortasunagatikako osagarriak zedarritzeko irizpide nagusiei buruzko argipideak ematea ere.

h) Kontseiluko edozein kidek Kontseiluaren aginpidekoak diren arloen inguruko edozein gairi buruzko iritzia eskatzen duenean, hori aztertu eta dagokion txostena egitea, eta egoki eriztcn dien neurriak proposatzea.

i) Zerbitzu-egintza aitortzen duten espedienteetan entzuna izatea.

3.- Hutsegite oso astunengatik jarritako zigorrak sei urtera iraungiko dira, hutsegite astunengatik jarritakoak bi urtera, eta hutsegite arinengatik jarritakoak hilabetera. Iraungipen-epea zigorrak jartzen dituen ebazpenak sendespena hartzen duen egunaren biharamunetik kontatuko da.

4.- Diziplinazko zigorren adierazpenak langile-erroldan idatziko dira. Adierazpen horiek denboraldi bat igaro ondoren, ofizioz baliogabetuko dira, baldin eta denboraldi horretan zigortuak ez badu bide eman zigorra jarriz amaitu den beste diziplinazko prozedurarako. Denboraldi horrek, hutsegite astun edo oso astunengatik jarritako zigorrak direnetan, iraungipen-epearen iraupena izango du, eta, hutsegite arinengatik jarritakoetan hiru hilabetekoa izango da, dagokion zigorra betetzen den unetik kontatzen hasita.

VIII. ATALBURUA
ORDEZKARITZA ETA PARTE-HARTZEA LAN-BALDINTZAK ZEHAZTERAKOAN

**98. atala.-**

1.- Lanbidezko, ekonomiazko eta gizarte-interesak ordezkatzeko, defendatzeko eta bultzatzeko, Ertzaintzako funtzionariek eurek aukeratutako sindikatuetan, sindikaritza-federazio edo bazkunetan bazkidetu ahal izango dira.

2.- Askatasun sindikalaz baliatzean, Autonomi Elkarteko Polizia Kidegoko funtzionariek lege honetan ezarri den deontologiako arau-bildumari erabateko errespetoa diotela jokatu beharko dute, eta eskubide eta askatasun publikoen bermearekiko begirune bereziz.

**99. atala.-**

1.- Sindikatuen ordezkari-kopuruarekiko eskubidea ondoren jartzen diren mailen arabera izango da, barruti bakoitzean, horien aukeraketa atal honetan eta honen garapenerako ematen diren arauen arabera izango delarik:

a) Mila funtzionari arte, hautatzaile egoeran daudenen artetik: 14.

b) 1.001etik gora: 3 ordezkari mila funtzionariko edo zatikako hautatzaile egoeran daudenetatik.

2.- Ertzaintzako ordezkaritza duten sindikatuek proposatuta, Herrizaingo Sailburuak ordezkariak hautatzeko deia egingo du, haien agintaldia bukatu aurretik hiru hilabeteren barruan egin beharko dena.

2.- Las faltas muy graves prescribirán a los seis años, las graves a los dos años, y las leves al mes. El plazo de prescripción comenzará a contarse desde que la falta se hubiese cometido.

3.- Las sanciones impuestas por faltas muy graves prescribirán a los seis años, las impuestas por faltas graves a los dos años, y las impuestas por faltas leves al mes. El plazo para la prescripción comenzará a contarse a partir del día siguiente a aquél en que haya adquirido firmeza la resolución que las imponga.

4.- Las sanciones disciplinarias se anotarán en el registro de personal. Dichas anotaciones se cancelarán de oficio una vez transcurrido un período de tiempo equivalente a su plazo de prescripción, en el caso de sanciones por falta muy grave o grave, y de tres meses en el supuesto de sanciones por falta leve, a contar desde el cumplimiento de la sanción correspondiente, siempre que durante este tiempo no hubiera dado lugar el sancionado a otro procedimiento disciplinario que termine con la imposición de sanción.

CAPÍTULO VIII
REPRESENTACIÓN Y PARTICIPACIÓN EN LA DETERMINACIÓN DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO

**Artículo 98.-**

1.- Para la representación, defensa y promoción de sus intereses profesionales, económicos y sociales, los funcionarios de la Ertzaintza podrán afiliarse a los sindicatos, federaciones o confederaciones sindicales de su elección.

2.- En el ejercicio de la libertad sindical, los funcionarios del Cuerpo de Policía de la Comunidad Autónoma habrán de proceder con absoluto respeto al código deontológico establecido en esta ley, con especial consideración a la garantía de los derechos y libertades públicas.

**Artículo 99.-**

1.- Las organizaciones sindicales tendrán derecho a un número de representantes, en cada circunscripción, determinado de acuerdo con la siguiente escala, que se elegirán conforme a lo dispuesto en este artículo y en la normativa que se dicte en su desarrollo:

a) Hasta 1.000 funcionarios, de los que tengan la condición de electores: 14.

b) De 1.001 en adelante: 3 representantes por cada mil funcionarios o fracción de los que ostenten esa misma condición de electores.

2.- A propuesta de las organizaciones sindicales representativas en la Ertzaintza, el Consejero de Interior convocará elecciones a representantes, debiéndose efectuar dentro de los tres meses inmediatamente anteriores a la fecha en que expire el mandato de los mismos.

3.- Hautatzaile eta hautagai honako hauek izango dira, hauteskunde-bideari hasiera ematen zaion eguna abiapuntutzat harturik: zerbitzu egoeran edo bigarren iharduerako egoeran ari diren karrerako funtzionariak, aldi baterako funtzionariak, eta hezkuntza-kurtsoa gainditu eta praktiketan ari diren saioaldiango funtzionariak.

4.- Legez-eratutako sindikatuek bultzatu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak. Hautagai-zerrenda bakoitzak hautatu beharreko ordezkari beste hautagai jarriko ditu.

5.- Hauteskunde-barruti bat izango da Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Kondaira Lurralde bakoitzean.

6.- Heineango ordezkaritza-sistemaren bidez, ehuneko 5 baino boto gehiago edo %5 lortu dituzten zerrenden baliozko botoak zati bete beharreko tokiaren arabera emango zaizkio zerrenda bakoitzari dagozkion tokiak. Bete gabeko postuak, hala gertatuz gero, bakoitzak lortutako botoen gainontzekoaren arabera zerrendei emango zaizkie, goitik beherako hurrenkeran.

7.- Ordezkarien agintaldia hautatutakoen aldarrikapena egiten denetik hasiko da, lau urte ondoren bukatuko delarik. Hala ere, epe horren bukaeran hautatutako hautagaien aldarrikapenik egin ez bada, agintaldia hura egin arte luzatu egiten dela ulertuko da.

8.- Ordezkariek honako arrazoi hauengatik galduko dute euren egoera:

a) Agintaldia bukatzeagatik.

b) Funtzionari izateari uzteagatik.

c) Ihardunko zerbitzua edo bigarren iharduera egoera ez den beste edozein administrazio-egoeratara igarotzeagatik.

d) Hiltzeagatik.

e) Karguari uko egiteagatik. Hori, Kontseiluko Lehendakariari bidalitako idazki baten bidez adierazi beharko da.

f) Izendatu dituen sindikatuak berak ordezkari horiek kendu izanagatik. Horiek kentzeko erabakia Kontseiluko Lehendakariari bidalitako idazki baten bidez adierazi beharko da.

9.- Aurreko idazatian ohartemandako kasuetan, bete gabe dagoen ordezkari lanpostua automatikoki beteko du ordezkatutakoaren zerrenda berekoa den hurrengo hautagaiak, edo hala badagokio, ordezkoak. Ordezko horrek agintaldia bukatu arte ihardungo du.

3.- Tendrán la condición de electores y elegibles, referida a la fecha de inicio del proceso electoral, los funcionarios de carrera que se encuentren en situación de servicio activo o segunda actividad, los funcionarios interinos y los funcionarios en prácticas que hubieran superado el curso de formación y se encuentren desarrollando el periodo de prácticas.

4.- Podrán promover candidaturas las organizaciones sindicales legalmente constituidas. Cada candidatura deberá incluir tantos candidatos como representantes a elegir.

5.- Existirá una circunscripción electoral en cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

6.- Mediante el sistema de representación proporcional, se atribuirá a cada lista el número de puestos que le corresponda de conformidad con el cociente que resulte de dividir el número de votos válidos de las listas que hayan obtenido el 5% o más de los votos por el de puestos a cubrir. Los puestos sobrantes, en su caso, se atribuirán a las listas, en orden decreciente, según el resto de votos de cada una de ellas.

7.- El mandato de los representantes se iniciará desde la proclamación de los candidatos electos, expirando al transcurso de cuatro años. Ello no obstante, si al término de dicho plazo no hubiera tenido lugar la proclamación de los nuevos candidatos electos, el mandato se entenderá prorrogado hasta tanto aquélla se produzca.

8.- Los representantes perderán su condición por alguna de las siguientes causas:

a) Expiración del mandato.

b) Pérdida de la condición de funcionario.

c) Pasar a cualquier situación administrativa distinta de las de servicio activo y segunda actividad.

d) Fallecimiento.

e) Renuncia, que deberá ser expresa y comunicada al órgano competente ante quien se ostente la representación.

f) Remoción por la organización sindical correspondiente, que deberá ser expresa y comunicada al órgano competente ante quien se ostente la representación.

9. En los supuestos previstos en el apartado anterior, la vacante se cubrirá automáticamente por el candidato siguiente, o en su caso suplente, de la misma lista a la que pertenezca el sustituido. El sustituto lo será por el tiempo que reste del mandato.

**100. atala.-**

1.- Sindikatuek sindikaritza-sekziotarako ordezkariak izendatu ahal izango dituzte, horiek osatzea gertatuz gero. Eskubide horren kaltetan gabe, eta lege honen 101. atalak oharternandako eskubide eta bermen eraentzapideaz baliatzeko bakar-bakarrik, aurreko atalak jarritakoaren arabera ordezkariak lortu dituzten sindikatuek ordezkariak izateko eskubidea izango dute hautatzaile baldintza dutenen 250 funtzionariko edo frakzioko bi, 5.000 arte, eta aurreko guztizkotik gorakoetatik 200 edo frakzioko ordezkari bat gehiago. Ordezkariak sindikatu bakoitzari atxikiko zaizkio egiazta dezaketen bazkidetzaren arabera, atal honek dioena eta horren garapenerako eman daitezkeen arauak kontutan izanik.

2.- Ordezkarien eratxikipena eta sindikatuek horiek izendatzea ordezkariak hautatzeko hauteskundeen emaitzen aldarrikapena publikoa egiten den egunetik hogeitamar egunetara egingo da.

3.- Sindikatu bakoitzaren bazkideen kopurua ordezkariak hautatzeko ekinpideari hasiera ematen zaion eguneko egoeraren arabera finkatuko da, zerbitzuko egoeran edo bigarren iharduean ari diren karrerako Funtzionariak, aldi baterako funtzionariak, eta hezkuntza-kurtsoa gainditu eta praktiketan ari diren saioaldiango funtzionariak bakarrik kontutan izango delarik. Horren egiaztapena, baita sindikatu bakoitzari dagozkion ordezkarien atxikipena ere, Lan-Harremanetako Kontseiluaren proposamenez Herrizaingo Sailburuak izendatu eta frogatutako gaitasuna eta alderkeriarik gabeko hiru pertsonak osatutako batzorde batek egingo du.

4.- Aurreko idazatian oharternandakoaren ondoriotarako sindikatuek eta Herrizaingo Sailak batzordeari eskatu hainbat agiripaper edo xehetasunak emango dizkiote. Bai batzordeko kideek zein, hala gertatuz gero, laguntasuna ematen dien langileak, ezagutu ditzaketen datuekiko lanbide-isilpekotasunaren menpe geldituko dira.

5.- Heineango ordezkaritza-sistemaren bidez eratxikiko zaizkio sindikatu bakoitzari dagozkion ordezkari-kopurua, bazkide guztien kopurua zati bete beharreko postuaren arabera. Gainontzeko postuak, hala gertatuz gero, sindikatuei eratxikiko zaizkie, goitik beherako hurrenkeran, bakoitzaren gainontzeko bazkideen arabera.

6.- Sindikatu bakoitzarena izango da eratxikitzen zaizkion ordezkarien izendapena, zerbitzuko egoeran edo bigarren iharduean ari diren karre-

**Artículo 100.-**

1.- Las organizaciones sindicales podrán nombrar delegados para las secciones sindicales que, en su caso, constituyan. Sin perjuicio de ese derecho, y a los solos efectos de aplicación del régimen de garantías y derechos previsto en el artículo 101 de esta ley, las organizaciones sindicales que hubieran obtenido representantes conforme a lo establecido en el artículo anterior dispondrán de un número de delegados equivalente a dos por cada 250 funcionarios o fracción de los que tengan la condición de electores hasta 5.000, y uno más por cada 200 o fracción de los que excedan del total anterior. Los delegados serán atribuidos a cada una de las organizaciones sindicales en función de la afiliación que acrediten, atendiendo a lo dispuesto en este artículo y a la normativa reglamentaria que pueda dictarse en desarrollo del mismo.

2.- La atribución de los delegados y su designación por las organizaciones sindicales se efectuará dentro de los treinta días siguientes a aquél en que se haga pública la proclamación de los resultados de las elecciones a representantes.

3.- El número de afiliados de cada organización sindical se determinará de acuerdo con la situación existente a la fecha de inicio del proceso para la elección de representantes, considerándose únicamente a los funcionarios de carrera en situación de servicio activo o segunda actividad, a los funcionarios interinos y a los funcionarios en prácticas que hubieran superado el curso de formación y se encuentren desarrollando el periodo de prácticas. Su verificación, así como la atribución de los delegados que correspondan a cada organización sindical, se llevará a cabo por una comisión integrada por tres personas imparciales y de probada competencia general, designados por el Consejero de Interior a propuesta del Consejo de Relaciones Laborales.

4.- A los efectos previstos en el apartado anterior, las organizaciones sindicales y el Departamento de Interior facilitarán a la comisión cuantos datos o justificaciones documentales les sean requeridos. Tanto los miembros de la comisión como el personal que, en su caso, les asista en el desarrollo de su función, quedarán sometidos a la obligación del secreto profesional respecto a los datos que lleguen a conocer.

5.- Mediante el sistema de representación proporcional se atribuirá a cada organización sindical el número de delegados que corresponda, de conformidad con el cociente que resulte de dividir el número total de afiliados por el de puestos a cubrir. Los puestos sobrantes, en su caso, se atribuirán a las Organizaciones Sindicales, en orden decreciente, según el resto de afiliados de cada una de ellas.

6.- La designación de los delegados que les resulten atribuidos corresponderá a cada organización sindical, debiendo recaer entre funcionarios de

rako funtzionariak, aldi baterako funtzionariak, eta hezkuntza-kurtsoa gainditu eta praktiketan ari diren saioaldiango funtzionariak bakarrik izendatu daitezkeelarik.

**101. atala.-**

1.- Sindikatuetako ordezkariek eta ordezkoek beren zereginak betetzeko honako berme eta eskubideak izango dituzte:

a) Poliziaren egoitzetara sartzea eta horietan eragozpenik gabe ibiltzea, aginpidedun agintariari esan eta agintariak adostasuna agertu ondoren, beti ere polizia zerbitzuaren ohizko Funtzionamendua oztopatu gabe.

b) Lanbideko auzici edo gai sindikalei buruzko edozein argitalpen zabaltzea.

c) Agintealdian eta hurrengo urtean hasiera emandako diziplinazko espedienteei buruz dagokion erabakia hartu aurretik Ertzaintzaren Kontseiluak egin beharreko txostenarekiko eskubidea.

d) Hileroko berrogei ordu, lan-orduen barruan eta benetako lan-orduak bailiran ordaindutakoak. Sindikatuek, dagokion organuari adierazi ondoren, euren sindikatuetako ordezkariei eta ordezkoei dagozkien orduen pilaketa egin ahal izango dute, hau aldi baterako funtzionariei edo praktiketan ari direnei ez dagokiela, ezta izendapen librearen bitartez betetako lan-postuetako Funtzionariei dagokienean hilero hamar ordu baino gehiago ezin izango dela.

e) Karguan dauden bitartean eta utzi ondorengo hurrengo urtean zehar lekuz aldatuak edo zigortuak ez izatea, lekuz aldatzea edo zigortzea beren ordezkaritza-iharduerarako ekintzek eragiten badute.

f) Ordezkaritza-iharduerengatik, hain zuzen ere, beren hobekuntzan ekonomi edo lanbide bereizkeriarik ez jasatea.

2.- Sindikatuen iharduera errazteko asmoz, berrehun eta berrogeitamar funtzionari baino gehiago dituzten polizia egoitzetan gela bat prestatuko zaie; gelaren erabilera sindikatuen arteko adostasunez antolatuko da. Era berean, polizia egoitza guztietan sindikaritza-iragarkiak jartzeko tokiak egongo dira, eta funtzionariek behar den moduan ikus ditzaten kokatuko dira.

carrera del Cuerpo en situación de servicio activo o segunda actividad, funcionarios interinos o funcionarios en prácticas que hubieran superado el curso de formación y se encuentren desarrollando el periodo de prácticas.

**Artículo 101.-**

1.- Los representantes y delegados sindicales dispondrán en el ejercicio de sus funciones de las siguientes garantías y derechos:

a) El acceso y libre circulación por las dependencias policiales, previa comunicación y conformidad de la autoridad competente, siempre que no entorpezca el normal funcionamiento del servicio policial.

b) La distribución de todo tipo de publicaciones referidas a cuestiones profesionales o sindicales.

c) La emisión de informe por el Consejo de la Ertzaintza, con carácter previo a la adopción de la resolución que proceda, en los expedientes disciplinarios que les sean incoados durante el tiempo de su mandato y el año inmediatamente posterior.

d) Un crédito de cuarenta horas mensuales, dentro de la jornada de trabajo y retribuidas como de trabajo efectivo. Las organizaciones sindicales, previa comunicación al órgano competente, podrán proceder a la acumulación de las horas que correspondan a sus representantes y delegados sindicales, sin que ésta se pueda efectuar a favor de funcionarios interinos o en prácticas, ni exceder de diez horas mensuales cuando se produzca a favor de funcionarios que ocupen puestos de trabajo provistos por el sistema de libre designación.

e) No ser trasladados ni sancionados durante el ejercicio de sus funciones ni dentro del año siguiente a la expiración de su mandato, siempre que el traslado o la sanción tenga su causa en acciones derivadas del ejercicio de su representación.

f) No ser discriminados en su promoción económica o profesional en razón, precisamente, del desempeño de su representación.

2.- Con el fin de facilitar el ejercicio de su actividad, en las dependencias policiales de más de doscientos cincuenta funcionarios se habilitará un local para uso de las organizaciones sindicales, cuya utilización se instrumentará mediante acuerdo entre las mismas. Asimismo, en todas las dependencias policiales habrán de existir lugares destinados a la exposición de anuncios sindicales, cuya ubicación garantizará el adecuado acceso por parte de los funcionarios.

3.- Aurreko idazatietan jarritako eskubide eta bermeak sindikatuekin izenpetutako akordioetan adieraz daitezkeen beste berme eta eskubideak, edo haietaz baliatzeko baldintzarik egokienak, gordez eta hauen kaltetan gabe ulertuko dira. Aipatutako akordio horien edukia izenpetu dituzten sindikatuentzako eta, hala gertatuz gero, horiei eratxikitzen zaizkienentzako izango dira erabili beharreko.

102. atala.-

1.- Sindikatuek, beren ordezkarien edo ordezkoen bitartez, polizia egoitzetan bilerak antola ditzakete; bilerak zerbitzuko orduetatik kanpo egingo dira, eta aginpidedun agintariak baimendu ondoren. Bilera egiteak ezin izango du inolaz ere eraginik izan zerbitzuak betetzean.

2.- Bilera egiteko baimena idazki bidez eskatu beharko da eta gutxienez lau egutegi-egun aurretik; eskaeran bilerarako eguna, ordua, lekua eta gaizerrenda jarri beharko dira. Baldin eta bilera egiteko ipinitako eguna baino hogeitalau ordu lehenago dagokion ebazpena ez bada jakin erazi, bilera egin ahal izango da, beti ere zerbitzuen ihardunean eraginik izan beharko ez duela.

3.- Bilerarako deia egin dutenek bilera arazorik gabe burutzearen erantzukizuna dute.

103. atala.-

1.- Ertzaintzako funtzionariei beren lan-baldintzak zehazteko dagokien parte hartzea, atal honen hurrengo lerroaldian aipatzen den ordezkotza egiaztatzen duten sindikatuen bidez egingo da.

2.- Aurreko lerroaldian esaten dena gauzatzeko, negoziazio-mahai bat antolatuko da Ertzaintzan, Autonomi Elkarteko Administrazioaren ordezkariek eta Ertzaintzan ordezkotza duten sindikatuen ordezkariek osatua; ordezkotzadun sindikatotzat hartuko dira bakarrik, lege honen 99. atalean ezarritakoaren arabera hauteskundeak egin eta ordezkarien ehuneko hamar gutxienez lortu dutenak.

Ertzaintzaren negoziazio-mahaiari dagokio alor horretako funtzionarien lan-baldintzak zehaztea; hala ere, Autonomi Elkarteko Administrazioaren funtzionari guztientzako lan-baldintzak zehazteko osatutako negoziazio mahai orokorrak onartzen dituen erabakiei lotuko zaie ondoko gaietan:

3.- Las garantías y derechos recogidos en los apartados precedentes se entenderán sin perjuicio y a reserva de cualesquiera otros, o de las condiciones más favorables para su ejercicio, que puedan reconocerse en virtud de acuerdos suscritos con las organizaciones sindicales. El contenido de tales acuerdos será de aplicación a las organizaciones sindicales firmantes y a aquellas otras que, en su caso, se adhieran a los mismos con posterioridad.

Artículo 102.-

1.- Las organizaciones sindicales podrán convocar, a través de sus representantes o delegados, reuniones en las dependencias policiales, que se celebrarán fuera de las horas de prestación del servicio y previa autorización de la autoridad competente. En cualquier caso, la celebración de la reunión no podrá afectar la prestación de los servicios.

2.- La autorización para celebrar la reunión habrá de solicitarse mediante escrito presentado con una antelación mínima de cuatro días naturales, en el que se indicarán la fecha, hora y lugar de la reunión y el orden del día de la misma. Si antes de las veinticuatro horas anteriores a la fecha prevista para su celebración no se hubiera notificado la resolución pertinente, la reunión podrá llevarse a cabo, siempre que no se vea afectada la prestación de los servicios.

3.- Los convocantes de la reunión serán responsables del normal desarrollo de la misma.

Artículo 103.-

1.- La participación de los funcionarios de la Ertzaintza en la determinación de sus condiciones de trabajo se efectuará a través de las organizaciones sindicales que hubieran acreditado la representatividad a que se refiere el apartado siguiente de este artículo.

2.- A los efectos previstos en el apartado anterior, se constituirá una mesa de negociación en la Ertzaintza, en la que estarán presentes los representantes de la Administración de la Comunidad Autónoma y los de las organizaciones sindicales representativas en la Ertzaintza, considerándose únicamente como tales a aquellas que hubieran alcanzado, al menos, el diez por ciento de los representantes electos conforme a lo dispuesto en el artículo 99 de esta ley.

La mesa de negociación de la Ertzaintza será competente para la determinación de las condiciones de trabajo de los funcionarios sujetos a su ámbito, sin perjuicio de ajustarse, en relación a las siguientes materias, a las decisiones que hubieran sido adoptadas por la mesa general de negociación constituida para la determinación de las condiciones de trabajo de los funcionarios de la Administración de la Comunidad Autónoma para el conjunto de ello:

a) Urteko gehienezko lanordu-kopurua eta lansarien handitze orokorra.

b) Lanpostuen zerrendak atontzeko irizpide orokorrak.

c) Sindikaritza-eskubideen arileku orokorra.

d) Lan-osasun politika.

3.- Autonomi Elkarteko Administrazioaren aginpideei buruz, hauexek izango dira negoziazio-gaiak:

a) Lansariak gehitu, zehaztu eta gauzatzea, eta lansarien arauketa egokitzea.

b) Barne sustapen, prestakuntza eta hobekuntzarako egitarauak eta dirutzak zehaztea, lege honen 7. atalean xedaturiko aginpideak ukitu gabe.

c) Sindikaritza-eskubideei eta partaidetza-eskubideei buruzko proposamenak.

d) Lan-osasun neurriak.

e) Gizarte laguntzak eta bizileku-beharkizuna errazteko neurriak.

f) 77. atalean aipatzen diren laneguna, lan-egutegia eta oporren arauketa, eta atal horren bigarren lerroaldian ohartemandako kasuei dagozkien ordainezkoak.

g) Lizentzia eta baimenak.

h) Lanpostuen sailkapena eta lanean aritzeko profesional-baldintzak.

i) Lanean sartu, lanpostua bete eta lantokian gora egiteko bideak.

104. atala.-

1.- Administrazioaren eta aurreko atalean aipatzen diren sindikatuen ordezkariek aurreko atalean ohartemandako gaiei buruzko ituneak eta akordioak egin ahal izango dituzte.

2.- Akordioek erabiliko dituzten gaiak Gobernu-Kontseiluaren aginpide izango dira, eta, baliagarri eta eraginkorrak izateko, aipatutako organoaren berarizko eta erazko onarpena beharrezkoa izango da.

3.- Ituneak, izenpetzen dituen organoaren aginpide-eremuari egokitzen zaizkion gaiei buruzkoak izango dira, eta esku hartu duten parteentzat behartze-indarrekoak izango dira zuzenean.

a) Jornada máxima anual de trabajo e incremento general de retribuciones.

b) Criterios generales para la elaboración de las relaciones de puestos de trabajo.

c) Marco general de derechos sindicales.

d) Política de salud laboral.

3.- Serán objeto de negociación, en relación con las competencias de la Administración de la Comunidad Autónoma, las siguientes materias:

a) El incremento, determinación y aplicación de las retribuciones, así como la adecuación del régimen retributivo.

b) La determinación de los programas y fondos para la acción de promoción interna, formación y perfeccionamiento, sin perjuicio de las competencias establecidas en el artículo 7 de esta ley.

c) Las propuestas sobre derechos sindicales y de participación.

d) Medidas sobre salud laboral.

e) Atenciones sociales y medidas que puedan favorecer el deber de residencia.

f) Jornada, calendario de trabajo y régimen de vacaciones, a que se refiere el apartado primero del artículo 77, así como las compensaciones relativas a los supuestos contemplados en el apartado segundo del mismo precepto.

g) Licencias y permisos.

h) La clasificación de puestos de trabajo y requisitos profesionales para su desempeño.

i) Los sistemas de ingreso, provisión y promoción profesional.

Artículo 104.-

1.- Los representantes de la Administración y de las organizaciones sindicales a que se refiere el artículo anterior podrán llegar a pactos y acuerdos en las materias previstas en el mismo.

2.- Los acuerdos versarán sobre materias de competencias del Consejo de Gobierno, y para su validez y eficacia será necesaria la aprobación expresa y formal de dicho órgano.

3.- Los pactos se celebrarán sobre materias que se correspondan con el ámbito competencial del órgano que los suscriba y vincularán directamente a las partes.

4.- Negoziazioan adostasunik lortzen ez denetan edo atal honetako bigarren idazatian aipatzen den berarizko eta erazko onarpena iristen ez denetan, Gobernu-Kontseiluak zehaztuko ditu lan-baldintzak.

5.- Autonomi Elkarteko Administrazioak eta sindikatuek prozedurak ezarriko dituzte, horretarako izenpetutako akordioen bidez, lan-baldintzen zehaztapenean sortu diren gatazkei edo ituneak nahiz akordioak ez betetzeei irtenbidea emateko.

## IV. IDAZPURUA ERTZAINTZAKO FUNTZIONARIEI BURUZ

### I. ATALBURUA LANBIDE-EGITURA

#### 1. SAILA ESKALAK ETA KATEGORIAK

**105. atala.-**

1.- Ertzaintza osatzen dute Eskala Gorenak, Egiterapen-Eskalak, Ikuskapen-Eskalak eta Oinarrizko Eskalak. Eskala horiek, sartzeko eskatzen den titulazioaren arabera, euskal Administrazio publikoetako funtzionariak A, B, C eta D sailkapen-taldeei dagozkie hurrenez hurren.

2.- Eskalen barruan honako kategoria hauek daude:

a) Eskala Gorenean, Intendenteburua eta Intendentea.

b) Egiterapen-Eskalan, Komisarioa eta Komisario-ondokoa.

c) Ikuskapen-Eskalan, Ofiziala eta Ofiziale-ondokoa.

d) Oinarrizko Eskalan, Agente Lehena eta Agentea.

3.- Ertzaintzan Fakultatibo eta Teknikarien Eskala ere egongo da, eta horko lanpostuak, kasu bakoitzerako eskatzen den titulazioaren arabera, A, B, C eta D sailkapen-taldeei egokituko zaizkie.

#### 2. SAILA ZEREGINAK

**106. atala.-**

1.- Batez ere Eskala Goreneko langilegoari dagozkio ekintza-unitateen zuzendaritzazko, bideraketazko eta koordinaketazko zereginak, bai eta segurtasun publikoari berariz dagozkion beste zereginak ere, bereziki ikerlze-lanari arreta ematen zaiolarik.

Batez ere Egiterapen-Eskalako langilegoari dagozkio poliziaren ekintza-zentru edo taldeekiko

4.- En los casos en que no se produzca acuerdo en la negociación o no se alcance la aprobación expresa y formal a la que se refiere el apartado segundo de este artículo, corresponderá al Consejo de Gobierno determinar las condiciones de trabajo.

5.- La Administración de la Comunidad Autónoma y las organizaciones sindicales establecerán, mediante acuerdos suscritos al efecto, los procedimientos para la resolución de los conflictos surgidos en la determinación de las condiciones de trabajo o los incumplimientos de pactos o acuerdos.

## TÍTULO IV DE LOS FUNCIONARIOS DE LA ERTZAINTZA

### CAPÍTULO I ESTRUCTURA PROFESIONAL

#### SECCIÓN 1ª. ESCALAS Y CATEGORÍAS

**Artículo 105.-**

1.- La Ertzaintza está formada por las Escalas Superior, Ejecutiva, de Inspección y Básica, correspondientes respectivamente a los grupos A, B, C y D de clasificación de los funcionarios de las Administraciones públicas vascas en función de la titulación exigida para el ingreso.

2.- Cada una de las citadas escalas comprende las siguientes categorías:

a) La Escala Superior, la de Superintendente e Intendente.

b) La Escala Ejecutiva, la de Comisario y Subcomisario.

c) La Escala de Inspección, la de Oficial y Suboficial.

d) La Escala Básica, la de Agente Primero y la de Agente.

3.- En la Ertzaintza existirá, asimismo, la Escala de Facultativos y Técnicos, cuyas plazas corresponderán a los grupos de clasificación A, B, C y D en función de la titulación exigida en cada caso.

#### SECCIÓN 2ª. FUNCIONES

**Artículo 106.-**

1.- Corresponden preferentemente al personal perteneciente a la escala Superior funciones de dirección, orientación y coordinación de unidades operativas y otras específicas de seguridad pública con especial atención a la actividad investigadora.

Corresponden preferentemente al personal perteneciente a la Escala Ejecutiva las funciones de

koordinakctazko eta agintezko zereginak, hala badagokio, Eskala Gorenaren zuzendaritzapean daudelarik.

Ikuskapen-Eskalako langilegoari dagokio Herritarren Segurtasuneko, Informazioko eta Ikerketako Unitateen barruko azpitaldeen erantzukizuna.

Oinarrizko Eskalako langilegoari dagozkio polizia zereginek eskatzen dituzten egiterapen-eginkizunak eta ekintza-zerbitzuan ari diren Eskalako funtzionari batekiko edo gehiagorekiko agintee-ginkizunak.

2.- Fakultatibo eta Teknikarien Eskalari dagozkio sartzeko eskatzen den titulazioak gaitzen duen lanbideari dagozkion egitekoak polizia zereginaren laguntzarako burutzea eta heziketa akademiko zehatz batek emandako ezagupen berarizkoak eskatzen dituzten zereginetan ihardutea.

3.- Aurreko idazatietan ohartemandakoa gorabehera, polizia zerbitzuen egiterapenak eta herritarren segurtasunaren premiek eskatzen dituzten egitekoak burutu beharrean daude funtzionariak.

II. ATALBURUA
ALORRAK ETA EGITURA

1. SAILA
XEDAPEN OROKORRAK

107. atala.-

1.- Ertzaintzako eskala eta kategorietako lanpostuzerrendek ezingo dute gainditu aurrekontuetako langile-zerrendek ezartzen duten kopurua.

2.- Herrizaingo Sailburuak onartuko du Ertzaintzaren egitura organikoa eta hau osatzen duten dibisio, unitate, sekzio, talde eta zerbitzuetan banatuko ditu lanpostuak, Ertzaintzarentzat orokortasunez onartu diren izendapenen eta kide-kopuruaren arabera.

3.- Aipatutako egitura hori honako alor haueta arduratuko da: herritarren segurtasunaz, administrazio-poliziaz, gaizkintza-ikerketaz, ekintza-baliabideez eta, orohar, Ertzaintzaren zereginen eremuan poliziaren administrazioaz gizarte-errealitateak une bakoitzean eskatzen dituen alorrez.

4.- Nolanahi ere, Ertzaintzaren egitura organikoak honako zerbitzu hauek daudela kontutan hartuko du, kasu bakoitzean zehaztutako maila organikoa eta lurralde-antolakuntza dituztelarik:

Arabako Miñoien Sekzioa.

Bizkaiko Foralen Sekzioa.

Gipuzkoako Mikeleteen Sekzioa.

coordinación y mando de centros o grupos operativos de policía bajo la dirección, en su caso, de la Escala Superior.

Corresponde al personal perteneciente a la Escala de Inspección la responsabilidad de los subgrupos dentro de las Unidades de Seguridad Ciudadana, Información e Investigación.

Corresponden al personal perteneciente a la Escala Básica las tareas ejecutivas que demanden las funciones policiales así como las de mando de uno o más funcionarios de la Escala en servicio operativo.

2.- Corresponde a la Escala de Facultativos y Técnicos la realización, en apoyo a la función policial, de tareas propias de la profesión para cuyo ejercicio habilite la titulación exigida para el ingreso y el desempeño de funciones que requieran de conocimientos propios y específicos de una concreta formación académica.

3.- No obstante lo previsto en los apartados anteriores, los funcionarios vendrán obligados a realizar los cometidos que demande la ejecución de los servicios policiales y las necesidades de la seguridad ciudadana.

CAPÍTULO II
ÁREAS Y ESTRUCTURA

SECCIÓN 1ª.
DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 107.-

1.- Las relaciones de puestos de trabajo de las diferentes escalas y categorías de la Ertzaintza no podrán sobrepasar la relación numérica que establezcan las plantillas presupuestarias.

2.- La distribución de los puestos de trabajo en las diferentes divisiones, unidades, secciones, grupos o servicios que compongan la estructura orgánica de la Ertzaintza, y la aprobación de ésta, serán efectuadas por el Consejero de Interior, conforme a las dotaciones y composición numérica aprobadas con carácter general para dicho Cuerpo.

3.- La estructura referida cubrirá las áreas de seguridad ciudadana, policía administrativa, investigación criminal, recursos operativos y, en general, las de administración de policía que en cada momento demande la realidad social en el ámbito de las funciones atribuidas a la Ertzaintza.

4.- En todo caso, la estructura orgánica de la Ertzaintza contemplará la existencia de los siguientes servicios con el nivel orgánico y organización territorial que en cada caso se señale:

Sección de Miñones de Álava.

Sección de Forales de Bizkaia.

Sección de Mikeletes de Gipuzkoa.

## 2. SAILA
## MIÑOIAK, FORALAK ETA MIKELETEAK

**108. atala.-**

Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioen egitura organikoa, lanpostu-zerrendak eta langile-zerrendak sekzio bakoitzari dagokion Foru Aldundiari kontsulta egin ondoren zehaztuko dira.

**109. atala.-**

1.- Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioek honako zeregin hauek burutuko dituzte:

a) Foru-erakundeak ordezkatzea.

b) Foru-agintariak babestea.

c) Foru-ondarearen ondasunak babestea eta zaintzea, horren instalakuntza eta zerbitzuen baliatzaileen segurtasuna bermatuz.

d) Legez indarra erabiltzea, Lurralde Historikoaren aginpide diren zereginak nahitaez burutu daitezen, zeregin horiek Ertzaintzaren beste zerbitzu bati ez badagozkio.

e) Kidegoko gainerako unitate edo zerbitzuei laguntzea, Herrizaingo Sailak emandako arauekin bat etorriaz.

2.- Era berean, polizi zereginak burutu ditzakete errepidezko garraioa jagon eta ikuskatzeari, errepideak zaintzeari eta errepide-poliziari dagokionez.

**110. atala.-**

Aurreko atalean aipatu diren zereginak betetzerakoan, Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioetako funtzionariak, ihardutez, dagokien Foru Aldundiaren menpe egongo dira. Orohar, Foru Aldundiei dagokie aipatutako zerbitzuak burutzerakoan zuzeneko agintea izatea eta zerbitzuak burutzeko araubidea edo zerbitzurako oharpideak zehaztea, Eusko Jaurlaritzak eta Herrizaingo Sailak dituzten ahalmenen kaltetan gabe, bereziki hiru egiteko hauek dituztelarik:

a) Sekzioaren barruan zerbitzu-manualdiak ematea.

b) Oporrak baimentzea.

c) Baimenak eta lizentziak ematea.

**111. atala.-**

Dagokion Aldun Nagusiak aginpidea izango du Miñoien, Foralen eta Mikeleteen sekzioetan aritzen diren Ertzaintzako kideen kontra diziplinazko espedienteak hasteko, espedientea izapidatzeko beharrezko diren ekintza guztiak egin daitezen agintzeko eta hutsegite astun eta arinengatik zigorrak jartzeko.

## SECCIÓN 2ª.
## MIÑONES, FORALES Y MIKELETES

**Artículo 108.-**

La estructura orgánica, relaciones de puestos de trabajo y plantillas de las secciones de Miñones, Forales y Mikeletes se determinarán previa consulta a las Diputaciones Forales correspondientes.

**Artículo 109.-**

1.- Las secciones de Miñones, Forales y Mikeletes ejercerán las siguientes funciones:

a) De representación de las instituciones forales.

b) De protección de las autoridades forales.

c) De protección y custodia de los bienes del patrimonio foral, garantizando la seguridad de los usuarios de sus instalaciones y servicios.

d) La coacción en orden a la ejecución forzosa de las funciones que competen materialmente al Territorio Histórico y que no correspondan a otros servicios de la Ertzaintza.

e) De auxilio al resto de las unidades o servicios del Cuerpo, de acuerdo con las normas que emanen del Departamento de Interior.

2.- Asimismo, podrán realizar funciones policiales en materia de vigilancia e inspección del transporte por carretera y las de conservación y policía de carreteras.

**Artículo 110.-**

En el ejercicio de las funciones a las que se refiere el artículo anterior, los funcionarios adscritos a las secciones de Miñones, Forales y Mikeletes dependerán funcionalmente de la Diputación Foral correspondiente, a la que competerá su mando directo en la prestación de los servicios referidos y la determinación de su régimen de prestación o manuales de servicio, sin perjuicio de las facultades que correspondan al Gobierno Vasco y al Departamento de Interior, y en particular el ejercicio de las siguientes atribuciones:

a) Conferir comisiones de servicios dentro de la propia sección.

b) Autorizar el disfrute de vacaciones.

c) Conceder permisos y licencias.

**Artículo 111.-**

El Diputado General correspondiente será competente para incoar expedientes disciplinarios a los miembros de la Ertzaintza que presten servicio en las secciones de Miñones, Forales y Mikeletes, disponer cuantos actos sean necesarios para su instrucción e imponer sanciones por faltas graves y leves.

## 3. SAILA
## AUZI-POLIZIA

**112. atala.-**

1.- Ertzaintzaren egitura organikoaren barruan Auzi-Poliziako Unitatea sortzen da Konstituzioaren 126. atalean eta Epai-Agintaritzari buruzko oinarrizko legearen 443. eta 445. ataletan ohartemandako zereginak bete ditzan.

2.- Aipatu den oinarrizko legearen 444.1 atalak dioenaren arabera, Auzi-Poliziako Unitateari atxikitako agenteak, beren zereginak betetzerakoan, ihardutez, ikerketaren gai den auziaz arduratzen diren Epaileen, Auzitegien edo Akusatzaile Publikoen menpe egongo dira.

3.- Auzi-Poliziako Unitatearen Buruzagia izango da epai-agintariengandik eta Akusatzaile Publikoengandik datozen agintezko eskaerak bideratzeko aginpidedun organoa, Unitate horretako funtzionariek edo baliabideek ikerketan parte har dezaten.

4.- Herrizaingo Sailak, ihardueten erritmoak eta lanari-erroldeko eskuarteak kontutan izanik, Auzi-Poliziako Unitateko zerbitzuak, sekzioak edo taldeak atxiki ahal izango dizkie zenbait Epaitegi edo Auzitegiri edo Akusatzaile Publikori, behinbetiko eta era iraunkorrez.

**113. atala.-**

Auzi-Poliziako Unitateari atxikitako funtzionarien heziketa berezia Euskal Herriko Polizi-Ikastegiaren bidez egingo da, eta, hala badagokio, praktika-aldiak ere egingo dira, zeinetan Epaileek eta Akusatzaile Publikoek parte har dezaketen.

Dagokion diploma edukitzea beharrezkoa da Auzi-Poliziako Unitatean lanpostuak betetzeko.

**114. atala.-**

1.- Auzi-Poliziako Unitateari atxikitako funtzionariek zeregin hori beteko dute soilik, nahiz eta, egoerak hala eskatuta, Ertzaintzaren egitekoen artetik agintzen dizkieten beste batzuk burutu ahal izan, hala nola lege-hausteei aurre hartzekoak.

2.- Gaitasunaren jabe den epaileak nahiz salatariak aginduta, ikerketa baten ardura duten funtzionariak, 112. atalean aipatu diren zereginak betetzerakoan, Epai-Agintaritzari buruzko oinarrizko legearen 446.2 atalean esandakoaren arabera bakarrik enkaitu edo baztertu daitezke agindu zaien ikerketatik.

3.- Zigorbidezko gaiei buruzko Epaile eta Auzitegiek eta Akusatzaile Publikoek Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/86 Oina-

## SECCIÓN 3ª.
## POLICÍA JUDICIAL

**Artículo 112.-**

1.- Para el cumplimiento de las funciones previstas en el artículo 126 de la Constitución, y 443 y 445 de la ley orgánica del Poder Judicial, se crea dentro de la estructura orgánica de la Ertzaintza la Unidad de Policía Judicial.

2.- Conforme a lo previsto en el artículo 444.1 de la mencionada ley orgánica, en el cumplimiento de sus funciones los agentes adscritos a la Unidad de Policía Judicial dependerán funcionalmente de los Jueces, Tribunales o Ministerio Fiscal que estén conociendo del asunto objeto de la investigación.

3.- El Jefe de la Unidad de Policía Judicial será el órgano competente para canalizar los requerimientos provenientes de las autoridades judiciales y del Ministerio Fiscal, a los efectos de que los funcionarios o medios de la referida Unidad intervengan en una investigación.

4.- El Departamento de Interior, teniendo en cuenta el ritmo de actividades y las disponibilidades de plantilla, adscribirá con carácter permanente y estable servicios, secciones o grupos de la Unidad de Policía Judicial a determinados Juzgados o Tribunales o al Ministerio Fiscal.

**Artículo 113.-**

La formación específica de los funcionarios adscritos a la Unidad de Policía Judicial se realizará a través de la Academia de Policía del País Vasco, incluyendo en su caso periodos de prácticas, en los que podrán participar miembros de la Judicatura y del Ministerio Fiscal.

La posesión del diploma correspondiente será requisito necesario para ocupar puestos en la Unidad de Policía Judicial.

**Artículo 114.-**

1.- Los funcionarios adscritos a la Unidad de Policía Judicial desempeñarán esa función con carácter exclusivo, sin perjuicio de que puedan desarrollar también las misiones de prevención de la delincuencia y demás que se les encomienden, cuando las circunstancias lo requieran, de entre las correspondientes a la Ertzaintza.

2.- Los funcionarios a quienes esté encomendada, por el juez o fiscal competente, una concreta investigación, en el ejercicio de las funciones a que se refiere el artículo 112, no podrán ser removidos o apartados de la investigación concreta que se les hubiera encomendado, sino en los términos previstos en el artículo 446.2 de la ley orgánica del Poder Judicial.

3.- Los Jueces y Tribunales de lo Penal y el Ministerio Fiscal tendrán, respecto de los funcionarios integrantes de la Unidad de Policía Judicial que

rrizko Legearen 35. atalean aitortzen zaizkien ahalmen berberak izango dituzte Auzi-Poliziako Unitatetik iraunkortasunez atxikitzen zaizkien funtzionariei buruz.

4.- Auzi-Poliziako Unitateko funtzionari baten kontra diziplinazko espedientea eragin duten ekintzek burutzen ari zen ikerketarekin zerikusi zuzena dutenean, funtzionaria menpeko duen Epaile, Auzitegi edo Akusatzaile Publikoaren txostena eskatuko da, bidaltzea egoki deritzen beste batzuen kaltetan gabe.

5.- Sail honetan ezarritakoa izan ezik, Auzi-Poliziako Unitateko kideen araubidea lege honetan Ertzaintzarentzat orokortasunez ohartemandakoa izango da.

**115. atala.-**

Auzi-Poliziako Unitatearen antolakuntza eta funtzionamendua egokiak izateko beharrezkoak diren arauak Jaurlaritzak emango ditu dekretu bidez.

## V. IDAZPURUA
## UDALTZAINGOEI BURUZ

### I. ATALBURUA
### XEDAPEN OROKORRAK

**116. atala.-**

1.- Bost mila biztanle edo gehiago duten Euskal Herriko udalerriek beren Polizia Kidegoak sor ditzakete.

2.- Salbuespen gisa, bost mila biztanle baino gutxiago duten udalerriek sor ditzakete beren Udaltzaingoak, zalantzarik gabe premiazkoak edo egokiak direnean. Kasu horretan, Kidegoa sortzeko Eusko Jaurlaritzak baimena eman beharko du aurretik.

3.- Nolanahi ere, Udaltzaingoak sortzeko erabakiek Udalbatzako kideen legezko kopuruak gehiengo osoz aldeko botoa ematea eskatzen dute.

4.- Udaltzaingoek ezein kasutan ere ez dute izango antolakunde eta ihardute-menpekotasunik Eusko Jaurlaritzarekiko edo euskal Autonomi Elkarteko Administrazioarekiko, ez eta honen esanerako Kidegoarekiko ere, horren menpekotasuna bakoitzaren udalerrikoarena soilik izango da baizik.

**117. atala.-**

1.- Polizia Kidegorik ez duten udalerrietan, 28.1 ataleko a), b), d), f) eta i) lerroaldietan ezarritakoaren arabera horrelako Kidegoei dagozkien zereginak zaindari, jagole, aguazil edo beste izenez ondasunak, zerbitzuak eta instalakuntzak babesten eta jagoten dituzten toki-erakundeko langileek burutuko dituzte, bete behar dituzten beste zereginen kaltetan gabe.

les sean adscritos con carácter permanente, las mismas facultades que les reconoce el artículo 35 de la Ley Orgánica 2/86, de 13 de marzo, de Fuerzas y Cuerpos de Seguridad.

4.- Cuando se incoe un expediente disciplinario a funcionarios de la Unidad de Policía Judicial y los hechos objeto del mismo guarden relación directa con la investigación que tuvieran encomendada, se recabará informe del Juez, Tribunal o Fiscal del que dependan, sin perjuicio de aquellos otros que consideren oportuno emitir.

5.- Salvo lo dispuesto en esta Sección, el régimen de los miembros integrados en la Unidad de Policía Judicial será el previsto con carácter general para la Ertzaintza en la presente ley.

**Artículo 115.-**

Por decreto del Gobierno se dictarán las normas precisas para la adecuada organización y funcionamiento de la Unidad de Policía Judicial.

## TÍTULO V
## DE LAS POLICÍAS LOCALES

### CAPÍTULO I
### DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 116.-**

1.- Los municipios del País Vasco que tengan una población igual o superior a cinco mil habitantes podrán crear Cuerpos de Policía propios.

2.- Con carácter excepcional podrán crear Cuerpos de Policía Local aquellos municipios que cuenten con población inferior a cinco mil habitantes, cuando existan indudables motivos de necesidad o conveniencia. En este caso, la creación del Cuerpo requerirá la previa autorización del Gobierno Vasco.

3.- En todo caso, los acuerdos de creación de Cuerpos de Policía Local requerirán el voto favorable de la mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación.

4.- Las Policías Locales no tendrán en ningún caso dependencia orgánica ni funcional del Gobierno Vasco ni de la Administración de la Comunidad Autónoma vasca o del Cuerpo de ella dependiente, sino que su dependencia lo será en exclusiva de cada municipio respectivo.

**Artículo 117.-**

1.- En los municipios donde no exista Cuerpo de Policía, las funciones que corresponden al mismo en virtud de lo dispuesto en los párrafos a), b), d), f) e i) del artículo 28.1 serán desempeñadas, sin perjuicio de cualesquiera otras que puedan tener atribuidas, por el personal de la entidad local que realice funciones de custodia y vigilancia de bienes, servicios e instalaciones, con la denominación de guardas, vigilantes, alguaciles o análogas.

2.- Toki-erakundeek Ertzaintzaren laguntza eskatu ahal izango diote Herrizaingo Sailari Udaltzaingoenak diren polizia zereginetan, baita herritik barrenako bideetan bidegoaia antolatzeko eta zuzentzeko ere, baldin eta Udaltzaingorik ez badute edo, izanik ere, aginpidean dauzkaten zerbitzu guztietarako nahiko kiderik ez badute. Azken kasu honetan, lankidetza hori ez da iraunkorra izango.

II. ATALBURUA
EGITURA

118. atala.-

1.- Udaltzaingoak ondoren aipatzen diren eskala eta kategorietan egituratzen dira, eskalak eta kategoriak sartzeko eska daitekeen titulazioaren araberako sailkapen-taldeei egokitzen zaizkielarik:

a) Eskala Teknikoa, hiru kategoriarekin: Intendentea, A Taldeari dagokiona, eta Komisario eta Komisario-ondokoa, B Taldeari dagozkionak.

b) Ikuskapen-Eskala, bi kategoriarekin: Ofizialea eta Ofiziale-ondokoa, C Taldeari dagozkionak.

c) Oinarrizko Eskala, bi kategoriarekin: Agente Lehena eta Agentea, D Taldeari dagozkionak.

2.- Eskala Teknikoa ehun mila biztanle baino gehiago duten udalerrietan bakarrik sor daiteke, eta Intendentearen kategoria hirurehun mila biztanle baino gehiago eta laurehun funtzionari edo gehiagoko Polizia Kidegoa duten udalerrietan.

III. ATALBURUA
UDALTZAINGOEN KOORDINAKETA

119. atala.-

Atalburu honen ondorioetarako, koordinaketa esaten denean, informazio-trukaketa, langile eta eskuarte izendapen kidekoa eta elkarrekiko ekintza bideratzen dituzten harreman-bideak zehaztea helburu duten iharduerak ulertu behar da, horrela udalerrien eta Autonomi Elkartearen ihardueten batasuna lortzeko.

120. atala.-

1.- Udaltzaingoen iharduerraren koordinaketak, lege honetan ohartemandako bestelakoen kaltetan gabe, honako zeregin hauek hartu behar ditu:

a) Udaltzaingoen antolakuntzako eta funtzionamenduko araudiak lotuko zaizkion espa-

2.- Las entidades locales podrán solicitar del Departamento de Interior la asistencia de la Ertzaintza en aquellas funciones de naturaleza estrictamente policial que correspondan a los Cuerpos de Policía Local, así como en la ordenación y dirección de tráfico en las travesías urbanas, en los casos en que no dispongan de Cuerpo de Policía o, disponiendo de él, sus efectivos no alcancen a dar cobertura a la totalidad de los servicios de su competencia. En este último supuesto, la colaboración no podrá tener carácter permanente.

CAPÍTULO II
ESTRUCTURA

Artículo 118.-

1.- Los Cuerpos de Policía Local se estructuran en las siguientes escalas y categorías, que se corresponden con los grupos de clasificación que se indican en función de la titulación exigible para el ingreso:

a) Escala Técnica; con la categoría de Intendente, correspondiente al Grupo A, y las de Comisario y Subcomisario, correspondientes al Grupo B.

b) Escala de Inspección; con las categorías de Oficial y Suboficial, correspondientes al Grupo C.

c) Escala Básica; con las categorías de Agente Primero y Agente, correspondientes al Grupo D.

2.- La Escala Técnica sólo podrá crearse en los municipios con población superior a cien mil habitantes, y la categoría de Intendente en aquéllos con población superior a trescientos mil habitantes y cuyo Cuerpo de Policía esté integrado por un número igual o superior a cuatrocientos funcionarios.

CAPÍTULO III
COORDINACIÓN DE POLICÍAS LOCALES

Artículo 119.-

